

**2022KO MAIATZAREN 25EKO KONTROLERAKO
BATZAR NAGUSIAREN BATZAR-EGUNKARIA
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
CONTROL DE FECHA 25 DE MAYO DE 2022
(TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “BFak Bizkako kultur ondare higiezin kontserbatzea eta babestea.”	4
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	4
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea	7
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	10
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea	11
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo eta bigarren puntuak irakurri dauz: “Errekalde parean A-8ko zubibidea erasteak azpiegituren politikan lehentasunik ez eukitea.” eta “Errekaldeko saihebidia.”.....	12
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	12
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	14
- Azpiegiturarako eta Lurrealde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea.....	17
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	19
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	21
- Azpiegiturarako eta Lurrealde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea.....	22
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Zaintzaileen Estatutua lurrealde osora zabaltzea.”	23
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	23
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	26
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	29
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	30

- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “AHT Bilboko sarreran lurperatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak eskainiko dauen finantziazioa.”	31
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiko Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	32
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	32
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiko Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	33
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	34
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “Ama Mertzedariakaz sinatutako lankidetza-hitza.”	34
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	35
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	35
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	36
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	37
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “Usansolo Galdakaoko udalerritik desanexionau edo bereizteko prozedurearen egoera.”	38
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	38
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	39
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	39
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	40
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “Errentaren aitopena aurrez aurre aurkeztea.”	40
- EH Bildu taldeko Urkaregi Exepare batzarkide andreak hartu dau berbea	41
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	41
- EH Bildu taldeko Urkaregi Exepare batzarkide andreak hartu dau berbea	42
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	43

- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamargarren puntua irakurri dau: “Alonsotegiko bidegorriaren ibilbidea.” 43
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 44
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea..... 44
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 45
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea..... 46
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamaikagarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Madres Mercedarias de la Comunidad de Ibarra erakundearen artean sinaturiko lankidetzaren hitzarmenaren kontrol ekonomikoa.” 46
- EH Bildu taldeko Urkaregi Exepare batzarkide andreak hartu dau berbea 47
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea 47
- EH Bildu taldeko Urkaregi Exepare batzarkide andreak hartu dau berbea 48
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea 49
- Batzarra amaitu da..... 49

2022ko maiatzaren 25eko batzarra
goizeko 09:30ean hasi da.

Se inicia la sesión del 25 de mayo
de 2022 a las 09:30 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señores y señoras, señor Diputado General, apoderados/as, estimados/as junteros/as, y a todas las personas que seguirán esta Sesión Plenaria vía streaming y, cómo no, a todos los y las compañeras de los medios de comunicación, muchas gracias por estar con nosotros/as y por emitir las noticias de esta Cámara. Muchas gracias.

Antes de introducirnos en el Orden del Día, he de decir que ha habido en este unos cambios que, además, han sido consensuados con los y las portavoces. Estos cambios son los siguientes:

El tercer punto ha sido retirado, y el cuarto punto se debatirá en el primer punto. Por lo tanto, ¿cómo dice el cuarto punto, señor Secretario?

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI**
jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0001049](#))

Autor: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Asunto: La conservación y protección del patrimonio cultural inmueble en Bizkaia por parte de la DFB.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0001049](#))

Expediente: ([11/B/18/0003470](#))

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0001049SE](#))

Egilea: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Gaia: BFAk Bizkako kultur ondare higiezin kontserbatzea eta babestea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0001049SE](#))

Espediente: ([11/B/18/0003470](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Elkarrekin Bizkaia taldetik Bizkaiko kultura-ondare higituezinari buruzko itauna dakargu, hain zuzen be, kultura-ondare higituezin honi eta Bizkaiko Foru Aldundiak beragaz dituan babes-betebeharrei buruz.

Euskera, Kultura eta Kirol Batzordeko eztabaida askotan, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak foru-erakundeei emoten deusezan betebeharren inguruan daukaguzan interpretazino-desbardintasunak nabarmendu doguz. Eztabaidea beste behin kokatzearren, Ganbera honetan lehenago be beste batzuetan aitatu doguzan desadostasun puntu garrantzitsuenak gogorazoko doguz.

Alde batetik, kontserbetako betebeharrari buruzko 29. artikulua dago, Foru Aldundiari zuzenean esku hartzeko aukerea emoten deusana arriskuan dagozan ondasunen osotasuna ziurtatzeko. Beste alde batetik, hurrengo dago, 30. artikulua; artikulua horrek aukerea emoten deus Aldundiari modu subsidiarioan jarduteko kultura-ondasun baten jaubeek ez badabez beteten ondasun horren kontserbazino-betebeharrak. Beste alde batetik, 89. artikulua be aitatu geinke, kalte-galeren konponketaren eskakizunari buruzkoa; horren bitartez, ondasuna konpontzeko betebeharra bete ezik Aldundiari emoten jako ahalmena modu subsidiarioan egiteko eta faktorea jaubei igorteko.

Gai honetaz guztiaz Elkarrekin Bizkaiak daukan eretxia berbera izan da azken urteotan. Hain zuzen be, ez da behar beste egiten zuzeneko esku-hartzearen aukerak kontuan hartuta. Batzordean eta baita Osoko Bilkuran be hainbestetan jorratu dogun kasu paradigmaticoa Euskal Errota Handien eraikina izan da, kultura-ondasun kalifikaua, babesik handiena daukana. Orain dala 10 urte be Ganbera honetan deigarri egiten jakon Aldecoa batzarkideari eta eraikinaren kontserbazino-egoereaz arduratzen zan, danok dakigun arren abandonu-egoerea 90eko hamarkadatik datorrela.

Gure legealdira helduta, 2021ean errekerimendu ospetsu ha egin jaken jaubei eta, ondoren, antza, eskaera zehatz bati erantzuteko eskatu eben luzapena emon jaken. Gure ustez, apurka-apurka enpresa batek zeozelako interesa euki behar ei dau eraikinari erabilerea emoteko, eta horrek poztu egiten gaitu, baina itaun honetan interesetan jakunerako, edo gure ustez argi geratu dana da Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean esku hartzeko daukan gaitasunetik iges egiten dauela, eta gehenez be bitartekari edo bideratzaile moduan lan egiten dau, eta hori interesgarria da, hoba ez, baina jarrera merkeagoa be bada.

Era berean, egia da esku-hartze zuzenaren bidea konplejua dana, eta zuhurtziaz joateak astiro joatea dakar. Diputadu andreak behin baino gehiagotan esan deusku bide horrek kontu handia izatea eskatzen dauela, eta, aldi berean, sano zorrotzak izatea eskatzen deuskula, baina argi dago kultura-ondare higituezinaren babesari jagokonez erlojupean jokatzen doguna, eta gure iraganaren lekuko diran egitura arkitektonikoen hondamen-egoeretara heltzeko arriskua daukagu, eta egitura horreek probintzia eta lurralde lez daukagun nortasuna osotzen dabe.

Eta ez daigun ahaztu Euskal Erroten adibidea gure uriburuan dagoan babes handieneko elementua dana, kokapen ezaguna eta guragarria daukana. Geure buruari galdetzen deusaguna da zer izango dan gure ondare xumeeneko beste elementu batzukaz, gure eskualdeetan zabaldua dagozanak. Kezka hori dala eta, beti esan izan dogu Aldundiak Bizkaiko kultura-ondare higituezinagaz daukan konpromisoa ez dala nahikoa.

Ondarearen balioa azpimarratzea eta bere kontserbazinoa alde batera itxita, horreek aparteko arrete merezidu dabe-eta, beste alderdi bat be nabarmendu gurako geunke, eta horrek, nire agerraldia Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeari eusten jarraitzearren, kontserbazino- eta babes-betebeharrak eta gainerakoak beteteko kultura-ondareko ondasunen jaubei laguntza ekonomikoa emoteko neurriei buruzkoa dan 75. artikuluan aitutzen diran sustapen-neurri ekonomikoz zerikusia dauka. Hau da, zeharkako esku-hartze moduko bat dirulaguntzen bidez, interesgarriak izan leitekezan elementu arkitektonikoetan.

Nire agerraldia ez daiten izan bakarrik Aldundiak egin dauen lanagaitik paparra atera dagian, gauza batzuk autortu beharko dira: zer egiten da zeharkako bide horretatik?

Gure ustez, batez be, interesgarria da eraikuntzak birgaitzeko esku-hartzeetara bideratzen diran dirulaguntzen urteko foru-dekretua, hau da, 300.000 euro iraunkorrak. Ez da zenbatekoa aldatu azken urteotan, gastu zehatzaren arloak eta sailaren aurrekontuak gora egin daben arren. Diru horrek arkitekturearen kontserbazioan eta zaharbarritzean emoten dauenerako emoten dau, baina hor dago, erabili leiteken elementu bat da, ez babestutako elementuetan esku hartzeko, baina bai euren balioa autortuta daukien elementuetan, dala Aldundiak autortuta, dala Eusko Jaurlaritzako erakunde eskudunak. Edozelan be, mahai gainean dagoan dirulaguntza lerro bat da, gehienez 100.000 euro emon leitekezala uste dot, eta horrek urtean 3 esku-hartze ekarriko leukez, baina badakit normalean ez dirana zenbateko horreek emoten eta laguntza xumeagoak izaten dirana.

Hori dirulaguntzen foru-dekretuari jagokonez. Beste alde batetik, dirulaguntza izendunak dagoz. Horreetarako 2019an 3 eurotik bat eta 2018an 2 eurotik bat erabili ziran. Gotzaindegiari emoten jakozan betiko 150.000 euroak dagoz eta, beste alde batetik, esku-hartze zehatz batzuk, errazoizkoak, gure ustez. Egia da dirulaguntza izendun horreetan arbitrariotasun apur bat gehiago ikusi geinkena, edo, beharbada, presak markautako agenda bat ikusi geinke Bizkaian kultura-ondare higituezina kontserbetako Plan Orokor bat baino gehiago. Horrek be kezkatu egiten gaitu, eta horregaitik dirulaguntza izendunen erispideez galdetu dogu.

Halanda ze, Bizkaiko kultura-ondare higituezinaren elementu garrantzitsuen kontserbazioan Aldundiak zuzenean zelan eta noraino jardun behar dauen beste irakurketa batetik abiauta, eta zeharkako dirulaguntzen bide hori hobetu egin daitekela kontuan hartuta, itauna proponidu dogu. Elkarrekin Bizkaia taldetik honako puntu honeei buruzko azalpena behar dogu.

Alde batetik, Aldundiak azken aldian eta ikuspuntu historikotik zeregin horretan egin dauen lanaren balorazioa; ondare higituezinaren elementu interesgarriak babesteko eginbehar hori gauzatzeko jarraitu diran erispideak; egin danaren balorazio kuantitatiboa, beharbada ikuspuntu ekonomikoago batetik; eta, gero, Elkarrekin Bizkaia taldearen interes zehatzakaitik, industria-ondareak lan-ildo horretan daukan pisu erlatiboa, babesaren gaiaren lehentasuna eta ondarearen kontserbazio politikoa. Eta, azkenik, hori oinarritzkoa da, alde horretatik hobetzeko tarterik dagoan. Badakigu, eta beti erantzuten jaku ez dauena inoiz guztion gogara euria egiten, baina itaun horretatik eratorritako mozino bat posible bada, Foru Gobernuaren ustez lan zehatz horretan dagoan hobekuntza-tarteari buruzko erantzunagaz zerikusia izango leuke.

Gure aldetik, besterik ez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Bilbao Ibarra, tiene usted la palabra. Y antes de continuar, quisiera saludar también a los y las ciudadanas que hoy están con nosotros/as en las tribunas de personas invitadas. Bienvenidos/as. Y es su turno, señora Bilbao Ibarra, tiene usted la palabra.

La Sra. **BILBAO IBARRA** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as.

La valoración que pudiera realizar tanto yo como cualquier persona sería subjetiva, pero entiendo que más que una valoración lo que ustedes piden es un balance, que es lo que haré.

En mi opinión, lo que hoy toca es hablar en relación a la inversión que realizamos en patrimonio.

En cuanto al patrimonio, tal y como usted ha señalado, el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes actúa siempre de acuerdo con las disposiciones y competencias que le atribuyen las disposiciones de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco.

Este es nuestro marco de actuación en materia de patrimonio, que es también el que nos establece los límites, o la principal ley que nos marca el campo de juego.

La Diputación Foral de Bizkaia realiza labores de conservación, investigación, difusión y gestión del patrimonio cultural de Bizkaia.

Bizkaiko Foru Aldunditik Bizkaiko kultura-ondarea jagoteko eta ondarea ikertzeko, zein zabaltzeko eta kudeatzeko lanak egiten ditugu.

1. En primer lugar, lo que hacemos es otorgar autorizaciones para poder realizar intervenciones sobre bienes culturales protegidos y canalizar dichas intervenciones.

En los últimos siete años, por ejemplo, la Diputación Foral de Bizkaia ha realizado 1.800 intervenciones, lo que supone que, si sacáramos una media al año, aproximadamente estaríamos hablando de alrededor de 250 intervenciones. Normalmente, el 80% de ellas corresponde, además, a intervenciones que requieren previamente de otras autorizaciones, como puedan ser municipales.

Prozesu horreek zera dakarre: alde batetik, eskaerea jasotea, eskaerea baloretea, aztertzea, jorratze-lanak jagoken talde teknikoei esleitzea (arkitekto-taldeak, arkitekto-teknikoak, etnografoak, arkeologoak, etab.), izan leiken babes-mailea egiaztetea, indusketea behar izan ezker azterlan arkeologikoa egitea, Bizkaiko Foru Aldundiko talde teknikoek higituezinera bisitak egitea, eta, azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiko langileria teknikoak txostena edo ebazpena egitea.

Kultura Ondarearen Zerbitzuko talde teknikoek egiaztatu behar dabe eskatutako dokumentazio teknikoan proponiduten dan jarduketeta bat datorrela esku hartu gura dan babestutako ondasun higituezin bakotxaren babes-araubideagaz, eta, gainera, halan bajagoko, neurri zuzentzaileak proponidu behar dabez.

2. Inspeccionar las actuaciones que se realizan en los bienes integrantes del patrimonio cultural vasco.

En los siete últimos años se han realizado unas 1.400 inspecciones, lo que supone que hacemos alrededor de 200 al año.

Desde nuestra área, además, colaboramos tanto con agentes particulares como con agentes de la sociedad civil para poder colaborar en actividades de

patrimonio cultural. Así, entendemos que las subvenciones tienen un efecto multiplicador en esta conservación del patrimonio.

3. La tercera área, en ese mismo sentido, sería el impulso de medidas económicas para la conservación y restauración del patrimonio cultural vasco.

Por una parte, tal y como usted ha mencionado, se conceden subvenciones para la rehabilitación del patrimonio cultural inmueble de Bizkaia, bien mediante convocatoria de subvenciones, o bien mediante subvenciones directas.

Horren haritik, esaterako, baserriak birgaitzea, eleizearen ondarea... bultzatzen ari gara.

Asimismo, se conceden subvenciones para la realización de actividades arqueológicas y paleontológicas en el territorio de Bizkaia, entendiendo que se trata de cualquier trabajo que afecte a bienes arqueológicos de protección media o especial, así como a zonas de presunción arqueológica.

También actuamos para la restauración y conservación del patrimonio marítimo mueble e inmobiliario.

Así como subvenciones y otras ayudas con museos y espacios patrimoniales.

También se regulan los incentivos fiscales al mantenimiento, mejora y fomento del patrimonio cultural vasco.

4. También nos corresponde la difusión del patrimonio cultural de Bizkaia.

Bizkaiko Foru Aldundiak, horren haritik, foru-dirulaguntzak eskaintzen dauz Bizkaiko ondarea ikertzeko eta zabaltzeko, beste mueta batzuetako zein etnografikoko jarduerak be egiteko Bizkaiko Foru-erakundearen bitartez. Esate baterako, bai museoak, bai Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko ondarearen interesguneak urte osoan dagoz zabalik, heltzeko errazak dira, eta 400 jardueratik gorako programak daukiez. Jarduera horreetan kalidadea lehenesten da, bai eta gure ondarearen zaintza egokia be. Gure ondarea egokitu egiten da eta modu erakargarrian erakutsi, bai lurraldeko biztanleei, bai bisitetan gaituenei be.

Horrezaz gainera, sustatzen diran programa berezien artean ondareari buruzko jardunaldi europarrak dagoz, eta bertan Europa mailan erreferentea da Bizkaia, parte-hartze soziala modu aktiboan artikulatuko moduagaitik, hain zuzen be, eta gizarte zibilagaz modu aktiboan lankidetzan aritzeagaitik. Hori dinot galderetako batek dinoalako gizarte zibilaren eretxiari kasu egiten ete jakon, zakarrago dinot, galderan hobeto planteauta dago, baina tira.

Europar erreferenteak be bagara, berbarako, gure ondare-iragana genero-ikuspegitik interpretetan eta barrirakurtzen laguntzeari jagokonez, European Woman's Legacy proiektua gidatuz, eta, tira, beste jarduera mueta batzuk be nabarmendu leitekez.

5. También cabe mencionar la restauración que realiza la Diputación Foral de Bizkaia, porque garantiza también la conservación de elementos patrimoniales relevantes de nuestro territorio.

Ahí están, por ejemplo, los numerosos trabajos y actividades que realiza la Diputación Foral de Bizkaia, así como las numerosas medidas que adopta a lo largo de todo el año para proteger nuestro patrimonio. Por ejemplo:

Trabajos de excavación: Forua, Arrola.

La conservación del arte rupestre en el territorio.

Como se puede observar, la relación de todas estas acciones y actuaciones que se están llevando a cabo es una muestra clara de que el Departamento está trabajando en la conservación y restauración del patrimonio cultural en los parámetros que permite la Ley.

¿Cuáles son los criterios que utilizamos o los criterios para poder llevar a cabo todo esto?

Independientemente de la intervención que se realice, esta se lleva a cabo siempre teniendo en cuenta los criterios técnicos, como no puede ser de otra manera. Escuchamos, sí, a cualquiera que se nos acerque, incluidos/as ustedes, escuchamos las opiniones, los criterios, etc., pero siempre adoptamos las medidas basándonos en criterios técnicos.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak profesional teknikoak ditu Kultura Ondarearen Zerbitzuan, eta, jakina, esku hartzeko erispideak behargin horreek helduarazoten deuskuezan txosten teknikoetan oinarrituta hartzen dira beti, beti be kultura-ondarearen kontserbazinoari buruzko legeria betez. Esku hartzen dan eraikinetako ahalik eta material eta memoria historiko gehien gordetean oinarritzen diran erispideak dira, batez be. Higituezina eregi dan fase historikoa aztertzen da, eta kultura-balioak eta ondare-balioak dabezan elementuak zeintzuk diran bereizten da, kontserbazinoa sustatzeko, eta hori guztia ondarearen kontserbazinoari buruzko Europako gutun barrienetan oinarrituta.

En mi opinión es cierto, y hay que tenerlo claro, que los recursos de la Administración son limitados, que los esfuerzos presupuestarios que estamos haciendo en estos momentos son los que se pueden. ¿Que querríamos hacer más? Sí, pero estoy convencida de que todas las personas aquí sentadas en primera línea tendrían la misma opinión con respecto a sus áreas.

Hay que tener en cuenta, además, que en nuestra área y con respecto a los dos o tres últimos años, la situación actual ha traído consigo otras prioridades, y que estamos haciendo un gran esfuerzo sobre todo para fortalecer el tejido cultural y flexibilizar o superar un poco la fragilidad que presenta.

Y es cierto que..., industria-ondarea herrialde honetako alderdi garrantzitsuenetako bat dala, baina ezin dogu ahaztu, era berean, ontzi-ondarea, arrantza-ondarea, meatzaritza-, erlijino- edo zibil-ondarea. Eta Aldundiak eta une honetan ni nagoan Sailak apustu serioa egin dabe El Pobal edo La Encartada moduko elementu enblematikoakaz, esaterako, kopuru handiak dakarzan urteko jarduera bategaz. Ez dodaz zenbakiak esango, badakizuzalako, eta zuk esango zeunken moduan “paparra ateratea” litzatekelako, eta ez da beharrezkoa. Hontsu, gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak La Encartada Fabrika Museoa ondat teknologikoa mekanikoki eta funtzionalki berreskuratzeko programea jarri dau martxan, eta, horrelan, ehun urtetik gorako makineria bat abiarazoteko bidean aurrera egin dogu.

En este momento, como ustedes saben, nuestra prioridad dentro del patrimonio industrial es orientar la propia estrategia de intervención de todo lo que

corresponde al entorno de la regata, también hemos hablado de ello, poniéndola en valor, adaptándola y dándola a conocer. Siempre desde el respeto a las sensibilizaciones que puedan afectar, ofreciendo un relato directo de lo que hemos sido, tanto a personas autóctonas como a visitantes.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Ha entrado bien en tiempo, señora Bilbao Ibarra. Y en el turno de réplicas, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Eta eskerrik asko diputadu andreari nire itaunari emondako erantzunakaitik, balantze hori egiteagaitik. Erakundearen balorazinoa beti da balantzea, nire ikuspegiaren arabera. Edozelan be, jaso dodan erantzunetik kanpo itxi behar da baimen kontua, Aldundiak egiten dauzan txostenak. Gure ustez, hori oinarritzko lana da, edo Bizkaiko Aldundiaren eskumeneko oinarritzko zeregina, bere betebeharrei eusteko legezko gitxienekoa da. Sano lan interesgarria egiten dau ondare zerbitzutik eta gainontzekoetatik.

Beste alde batetik, beharbada arkeologiagaz zerikusia daben gaiak be kanpoan itxi beharko lirateke, nire itaunean nahiko argi dago-eta zerikusi gehiago daukana ondare higituezinagaz eta zaharbarritze zehatzagaz; eta, era berean, hedapen-ahaleginak, ikerketa-ahaleginak eta gainerakoak modu monografikoan tratau beharko liratekela uste dodalako, lehen esan dodan moduan. Egia da hedapen-gune horreetan gizarte zibil baimenduari eta adituari parte hartzen ixten jakena, behar dan moduan. Kontua da, berba egiten ixteaz gain, ea kontuan hartzen diran, Aldundiko teknikariez gain, jakina. Halanda ze, proponidu doguzan kezka bie jakokenez bi proposamen erraz egin leitekez: dirulaguntzen bidezko zeharkako esku-hartzearen gaia dogu, eta beste alde batetik, zuzeneko esku-hartzearen gaia.

Diruei jagokenez. Badakigu urteko foru-dekretu bidezko dirulaguntzea ez dana erreferentziazkoa esparru horretan; gure ustez, birgaitzearen eta balioa emotearen kasuan jenteak gehiago begirutzen deutso Eusko Jaurlaritzeari, izan behar dauen moduan, baina egia da dirulaguntza horreek mahai gainean dagozana; eta egia da dagoan dirua izango dana, baina sailaren zenbatekoak %33 igon dau 2018tik hona, eta ondare higituezin eta arkeologikoagaz lotutako arloko gastuak %7,2 inguru egin dau gora. Laguntza-lerro horren gehikuntzea arlo zehatzean gastua handietzeagaz lotu al leiteke? Hau da, ez dot esan gura sailen igoereagaz lotzea, %32 gehiago izango litzatekelako, hau da, 99.000 €gehiago, baina bai beharbada gastuen eremuagaz lotutakoa, eta hori ia 22.000 € gehiago izango litzateke dirulaguntzen lerro horretarako. Bururatu jatan proposamen erraza da, ez termino teknikoetan, ezpada zentzunaren terminoetan.

Beste alde batetik, eta hemen dago gai korapilatsua, eta ez dot ikusten zein izango dan urtenbide posiblea, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren zuzeneko esku-hartzean izango dan jarrerearen kontua da. Euskal Erroten adibidea ipini dot; orain, adibidez, Guggenheimen balizko handitzeak sortu dauen astrapala guztiagaz bitxia da industria-ondareko bi elementu sortu izana, eta beharbada zeharka azkenean balioan jarri eta berreregi egingo dira: Daliako fabrika, esaterako, eta Murueta ontziolak, emongo jaken egitekoaren arabera.

Beti emoten dau gai horreek Aldundiak garrantzitsuagotzat jotzen dauzan beste batzuen atzetik datozala eta beste termino batzuetan doazala (Guggenheim handitzea, berbarako). Urdaibaiko eremuaz ari gara. Izan be, La Encartadari buruz berba egin dan ezker, adituek bigarren Encartada deitzen deutesie Foruan dagoan narru-lantegiari, eta hondino be XIX. mendeko makineria barruan izan behar dau. Orduan,

jakina, guk ikusten doguna da elementu batzuk sano egoki jagoten dirala, baina altzariak kultura-ondare higituezin lez salbetako ariketa bat dala. Guk ikuspegi zabalagoa eta europearragoa behar dogu, orain degradauta dagozan espazio horreei bizitza bat emoteko gehiago, eta ez horrenbeste museo lez kontserbetako, horrek be bere interesa daukan arren.

Gauza gehiago. Esku hartu leiteken ondarearen adibide gehiago dagoz. Zubileta torretxeari buruzko akordioak egin dira, munduari bira osoa emon jakonetik 500. urteurrenaren inguruan hainbeste berba egiten dan honetan, eta badagoz elementu horri buruzko akordioak, baina ez dago esku-hartze zuzenik. Eta, tira, kontserbau beharreko elementu interesgarrien zerrendeagaz jarraitu ahal izango neuke.

Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen inguruan be berba egin dogunez, arriskuan dagozan elementu esanguratsuei buruz Aldundian dagozan herritarren kexen zerrendea eskatu dot hontsu; izan be, legeak be jasoten dauen zeozer da, ez daukat orain, baina, jakina, begirada bat botako deusagu, nire ustez herritarren kexen zerrenda horretan be islatzen da-eta Aldundiak Bizkaiko kultura-ondare higituezinari buruz daukan jarrera aktiboa, gitxi gorabehera, eta horri buruzko urtenbideren bat bilatu gurako geunke aurrekontuaz harago, bai termino sinbolikoetan eta bai jarduera zehatzetan.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. Y en el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Bilbao Ibarra, tiene usted la palabra.

La Sra. **BILBAO IBARRA** andreak: Sí, bueno. Empezando por lo último. Creo que compartimos esa preocupación.

Al fin y al cabo, en cuanto se detecta que algo va mal, ahí se hace un estudio detallado. Tal y como he comentado anteriormente, nuestros técnicos y técnicas y nuestro personal acuden ahí (cuando hemos mencionado los trabajos de inspección, estos también lo son), y en base a ello se establecen tanto las prioridades como a quién corresponde y qué actuación se debe realizar, etc.

Pero de lo que usted ha mencionado yo solo puedo decirle que, al fin y al cabo, el trabajo del departamento depende de lo que se basa en la ley. Sería repetirlo, pero eso lo que nos señala es que, aun teniendo importancia la conservación, hay otras áreas que también son importantes y que hay que abordar. La conservación sí, la investigación también, la difusión, poner en valor la sensibilización, la adaptación a nuevos usos..., y ustedes saben que en numerosas áreas se ha avanzado y, además, si somos pioneros y modelo en ese marco europeo que usted ha mencionado, lo somos a la hora de aunar ese patrimonio industrial.

Sé que ahí también existen discrepancias e interpretaciones diferentes entre ustedes y nosotros/as. Compartimos una preocupación, y en eso coincidimos, pero es cierto que llegamos donde llegamos, siempre con áreas de mejora, y que también estamos en ello, y yo creo que lo saben, porque las últimas actuaciones se han enfocado en ese sentido, porque también debatimos ese proyecto del entorno de la regata, lo que el propio EH Bildu puso en valor, y estamos dando pasos, pasos que ustedes conocen siempre cuáles son: investigar, ver la situación en la que se encuentran, las prioridades, y sobre todo ofrecer nuevos usos posibles de cara al futuro, para que el mantenimiento sea más fácil, y para que ese relato que hacemos y esa memoria histórica que recuperamos sea más significativa para todos y todas, y para que seamos más conscientes de lo que hay que

conservar, tanto las propiedades privadas como las públicas. En todo caso, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Bilbao Ibarra. Los puntos primero y segundo del Orden del Día los debatiremos de forma conjunta.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI**

jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000956](#))

Autor: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Asunto: La ausencia de prioridad en la política de infraestructuras del derribo del viaducto de la A-8 a su paso por Rekalde.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000956](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (91A)

Expediente: ([11/B/18/0003425](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000956SE](#))

Egilea: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Gaia: Errekalde parean A-8ko zubibidea erasteak azpiegituren politikan lehentasunik ez eukitea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000956SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (91A)

Espedientea: ([11/B/18/0003425](#))

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000975](#))

Autor: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Asunto: La variante de Rekalde.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000975](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (92A)

Expediente: ([11/B/18/0003438](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000975SE](#))

Egilea: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Gaia: Errekaldeko saihebidia

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000975SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (92A)

Espedientea: ([11/B/18/0003438](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de los junteros que han presentado la iniciativa. En este caso, en primer lugar, tiene la palabra el señor Andrade Aurrecoechea. Y antes los/las he saludado, pero decirles que están aquí presentes los/as vecinos/as de Rekalde. Un saludo, y les damos la bienvenida a estas Juntas Generales de Bizkaia. Dicho esto, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea, buenos días a todos/as.

50 urtetik aurrera bititza hobetu egiten dala dinoe. Beharbada bai, ez dot eztabaidatuko, baina orokortasun guztietan lez, beti dago salbuespenen bat. Eta hori

gertatuko litzateke gutakoren bat Bilboko Errekalde auzoko bizilaguna bagina. Errekalde Bilbo hegoaldeko auzo historikoa da, apalenetakoa baina harroenetakoa, eta ia mende erdi ezkerotik ia 50.000 bizilagunek euren auzoaren erditik abietan dan zubibidea jasaten dabe. Zubibide hori administrazio publikoaren itxikeriaren eta milaka bizilagunen sufrimentuaren erakusle nagusia da. Hormigoizko muntstro bat, era guztietako kutsadurak sortzen dauzana eta arriskutsua, zubibideko trafiko-istripuek eragindako munurratuen ondorioz.

1975eko apirilaren 22an inauguratu zanetik, herritarrek azpiegitura horregaz ez dagozala ados adierazo dabe, eta halan salatu dabe behin eta berriz. Izan be, urte batzuetatik hona gero eta haserrealdi handiagoa nabari da Bilboko beste edozein auzo baizen bilbotarra izan gura dauen auzo horretan. Errekaldeko bizilagunen haserre horren azken adierazpena joan dan eguenean izan zan, eta horrenbesteko itxikeriaz nazkatuta, Aldundi honen aurka honako esaldiakaz manifestatu ziran: “Pradales guzurretan ari da, nahikoa diru dago”. “Aldundia, bete eizu emondako berbea” eta “Aldundiak guzurra dino eta Udalak onartu egiten dau”.

Izan be, kontu honetan guztian, zenbat balio dau Aldundiaren konpromisoak? Rementeria jauna ez al da harro egoten bere berbea emon eta bete egiten dauela esaten, bada? Zer balio dau zure berbeak, Ahaldun Nagusi jauna? Hara, 1999ko zezeilaren 25ean, orain dala 23 urte eta hauteskunde-urtean, jakina, Aldundiak Errekalde auzoko saihebidetako erregimena erakutsi eban; horrek zubibidea kentzea ekarriko eban. Proiektu ha garai haretako 19.000 milioi pezetatan estimatu zan. 2014an, orduan Herri Lan diputadu zan Itziar Garamendi andreak Errekaldeko saihebidetako erregimena aurretiazko izapideak hasi zirala jakinarazo eutsan Foru Aldundiari.

Ordurik hona, konpromiso hori hauteskunde-promesa bat aldatu leiteken modu imajinaezin guztietan aldatu da eta, kasu honetan batez be, Gobernuak bete gura ez dauen promesa bilakatu da.

Eta horrelan heldu ginan gaur egunera arte. Izan be, Bilboko alkateak bere betebeharrak egin dauzala adierazo dau: Uri Antolamendurako Plana onartu dala eta orain Aldundiari jagokola. Halanda be, egun honeetan Pradales jauna heldu da aurreko Osoko Bilkurara eta zintzotasun eraso baten berretsi egin dau Errekaldeko saihebidetari eta zubibidearen erasketeari buruz agindutako guztia engainu hutsa izan dala, ke hutsa, eta ez Errekalde auzoarentzat bakarrik, ezpada Bilbo osoarentzat be. Izan zaitezte zintzoak. Egia esan eizue: gaur egun ez zagoze Bilboko arazoetan eta egoteko asmorik be ez daukazue.

Egoera horren aurrean, uste dogu beharrezkoa dala erantzukizun politiko handienagaz jokatzea, eta Bilboren etorkizunagaz jolasten ez ixtea, ezin da Errekaldeko bizilagunen itzaropenagaz salerosian aritu, urte asko daroez-eta promesak entzuten, gero behin eta berriz urratzen diran promesak. Zubibidea erastea Aldundiaren lehentasunak izan behar dau.

Azken asteotan, Persiako bazar baten egongo bagina lez, hauteskundeak hur daukaguzanez (udaletarako, Aldundirako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak), promesak eta promesak entzuten ari gatzakoz Aldundiari. Egunero, bidegorriak kostaldetik, bidegorriak barrualdetik, bidegorriak itsasadarretik... Bidegorriak ia 200 milioi eurora heltzen dira. Kamioilariak 60 milioi euroko bidesariak kobretako arkuak, Urdaibain Guggenheim bat, Errekaldeko metro baterako azterlanak, inork gura ez dauen bide batetik... Egunero promesa bat, hauteskunde aurreko denporaldiari jagokona.

Baina, halanda be, zubibidea kentzeko dirurik ez dozuela dinozue. Auzotarrek dinoen lez, egun badago diru nahikoa, lehentasunak dira jarri behar diranak,

eta zubibidea lehentasun lez hartuta amaitu. Dirua egon badago, baina ez dau emoten Aldundi honen eretziz Errekaldeko saihsbiderako danik diru hori.

Beste behin be, nire taldeak argi dauka ez dozuena inoiz zubibidea erasteko konpromiso sendorik izan, eta “zuek” dinodanean zuei guztioi buruz ari naz, Aldundi hau goberneten dozuen guztioi buruz, Euzko Alderdi Jeltzalea eta Alderdi Sozialistea, Foru Gobernu honetako kide zarien aldetik. Izan be, ikusi egin behar da zelan aldatu dan Alderdi Sozialistearen erispidea Aldundiagaz gobernetan hasi zinienetik. Udalean alderdi bat zan, Alfonso Gil zinegotzia bera, eta behin eta barriro agertu da Errekalde erastearen alde. Edo Aldundian 2014an Alderdi Sozialistek be mozino bat aurkeztu eban eta bertan hori erastea preminazkoa zala inoan.

Urte lar dira eta promesak ez dira bete, Errekaldeko bizilagunek ez dabe merezidu foru-erakundeen aldetik horrelango tratutrik. Dinodan lez, Talde Popularraren eretzian zubibidea erasteak lehentasunezko jardurea izan behar dau, eta beharrezkoa da lehenbailehen aurrera egitea, behin Bilboko Uri Antolamendurako Plana onartuta, hurrengo faseari hasierea emon dakion eta proiektu hori ahalik eta lasterren errealidade izan daiten.

Pradales jauna, gaur aukera historikoa dozu zure politketan norabide-aldaketa bat emoteko, eta zubibide hori erasteko eta Errekalde saihsbidea eregiteko konpromiso sendoa eta behin betikoa hartzeko. Ziur egon nire taldeak lagunduko deusuna horrelango proiektu bat bultzatzen daben kontu zentzudunetan. Horrelan ez bada, egon zaitez seguru ez doguna atzera egingo zuen alkartasun-faltea gogorarazoteko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. Y a continuación, el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

En el pleno de control anterior, formulé una pregunta oral sobre el estado del proyecto de construcción de la nueva variante de Rekalde y el derribo del viaducto actual, tras la aprobación del PGOU en el Ayuntamiento de Bilbao, que supuso un paso previo necesario para iniciar este proyecto.

Hoy no voy a dar una explicación histórica de los motivos de la desaparición de ese viaducto, porque ya lo hice el mes pasado y hoy también lo ha hecho el miembro del Grupo Mixto señor Andrade.

Yo lo explicaré con una única cifra: 47 años.

47 años, desde mil novecientos setenta y cinco (1975). Ni tan siquiera existían estas Juntas, o los fueros estaban prohibidos en aquel momento y la alcaldesa de Bilbao era Pilar Careaga.

47 años con esta infraestructura que recorre un barrio y lo divide en dos.

47 años, con malos humos, emisiones y contaminación.

47 años con continuos ruidos y accidentes en esa zona.

47 años soportando esta infraestructura viaria que no aporta ninguna ventaja al barrio.

Hoy quiero centrarme en los compromisos, quiero avanzar y mirar hacia delante, quiero saber si su departamento está dispuesto a iniciar los trámites para activar cuanto antes este proyecto. En eso quiero centrar mi interpelación.

O hay voluntad o no hay voluntad, esa es la cuestión. De hecho, como ya hice en el pleno anterior, quiero recordarle que algunas acciones se pueden llevar a cabo desde hoy mismo, ya que no es necesario establecer un presupuesto para ello.

En el Pleno de abril, el señor diputado Pradales Gil, me respondió de esta manera:

“(...) Avanzar sí, claro, pero siempre que sea posible, en la medida de lo posible, tal y como usted lo especifica y como aparece en esas pautas y criterios generales (...)”.

“(...) Nosotros aceptamos el documento aprobado en las Juntas Generales, no hay duda, pero hoy no puedo dar más información (...)”.

Ahí están sus palabras.

Transcurrido otro mes desde nuestra anterior solicitud, entendemos que el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial habrá realizado algunas de las actuaciones a las que el Diputado se refirió como esas cuestiones pendientes.

Eta horren inguruan galdetu gura deutsugu, Pradales Gil jauna, zure sailak emongo dauzan urratsen inguruan.

Barriri aitaturko deutsut Batzar Nagusietan adostutako testua, onartu egiten zenduala esan zenduan hori, nahi-ta orain dala hilebete informazio gehiago ezin zeunskun emon horretaz.

Errekaldeko saihebidia: egungo zubibidea erastea be bai, inpaktu bisuala eta akustikoa eta baita A-8 autobideak Bilboko auzo hori zeharkatzean sortzen dauzan arriskuak be ezabatzeko helburuagaz.

Lantaldeak argi eta garbi transmitidutako sensibildadeak ikusita, plan posibilistearen barruan Errekaldeko saihebidia egiteak lehentasunezko jardueria izan behar dauela uste dau.

Eta konpromisoa hartu dau beharrezko izapidetzean eten barik aurrera egiteko, Bilboko HAPO behin betiko onartu ondoren eraikuntza-proiektua idazten eta ingurumeneko eta administrazinoko izapideak egiten hasi daitezkan. Horretarako, beharrezko aurrekontu-zuzkidurea emongo da. Horixe da lantalde horretan adostutakoaren idazketa zehatza.

Eta orain, arabere zuzenago esango deutsut barriri, modu eskematikoan, eta gure ustez, aurrera eroan beharrezko funtsezko lau puntuakaz:

1.- Zubibidea erastea eta saihebidia eregitea lehentasunezko jarduketa lez sartzea. Hori litzateke lehenengoa, lehentasun hori emotea.

2.- Beharrezko izapidetzean eten barik aurrera egiteko konpromisoa. Eta azpimarratu egiten dot "eten barik".

3.- Eraikuntza-proiektuaren idazketeari eta ingurumen- eta administrazio-izapideei ekitea.

4.-Horretarako behar dan aurrekontu-zuzkidurea emotea. Aurrekontuz hornidutea, diruz hornidutea.

Horreek dira Bizkaiko Batzar Nagusietan hartutako konpromisoak, eta, gure ustez, ahalik eta azkarren egin beharko litxakie aurre.

Eta hori da EH Bilduk eskatzen deusuna, esan deiguzula ze pausu emongo dozuzan. Esan degiezula Errekaldeko bizilagunei zelan eta noiz hasiko diran izapideak.

Eta gaur jakinarazo deuskue Errekaldeko Autopista Kanpora plataformako hiru lagun dagozala gugaz, Mari Ángeles, Marta eta Padi, eta uste dot aukera ona dala zuk, Pradales jauna, informazino hori zuzenean emon degiezun.

Este proyecto es de vital importancia para mejorar la calidad de vida de los y las habitantes de Rekalde y, si esto prosperara supondría reducir los niveles de contaminación acústica y mejorar la calidad del aire de la ciudadanía.

Es un proyecto reivindicado por la ciudadanía en las últimas cuatro décadas, una deuda incumplida por las instituciones. Ahora, con la aprobación del PGOU de Bilbao, no hay excusas para no afrontar la variante.

Por todo ello, en nuestro caso no le formularemos una pregunta general, sino detalles de los hitos de los que hablaba usted en el pleno anterior. Queremos respuestas con datos y fechas concretas. Y las preguntas son:

- ¿Considera su departamento la variante de Rekalde un proyecto prioritario? Sí o no, la respuesta es muy sencilla.

- ¿Han analizado ya los antecedentes sobre urbanismo, medioambiente e información técnica? Sí o no, o si está en proceso. La respuesta no es tan complicada.

- ¿Han identificado y concretado ya los puntos críticos y los plazos que usted mencionaba? Esta es otra pregunta.

- ¿Cuándo prevén realizar todas estas actuaciones?:

- Tener listo el pliego de licitación para la licitación pública, la contratación y la adjudicación.

- Elaboración del proyecto técnico provisional.

- Completar la tramitación urbanística y ambiental.

- Aprobación del proyecto definitivo de edificación.

- Licitación y ejecución de las obras.

-Inicio de los trabajos de derribo del viaducto.

•¿Y cómo pretende financiar su departamento todas estas actuaciones a partir de hoy y en los próximos años? ¿Con qué cantidad cada año?

Creemos que esto también es fundamental.

Beharbada galdera asko izango dira, Pradales Gil jauna, eta horregaitik idatziz aurreratu geuntsuzan gure eskabidean. Halanda ze, eskatzen deutsugu (ez da gauza barria zuretzat), gaur, 2022ko maiatzaren 25ean, orain dala hilebete emon ezin zeunskun informazino hori emon deiguzula. Eta ez bakarrik Ganbera honi, ezpada Errekaldeko bizilagunei be. Izan be, hemen bertan dagozanek ezeze streaming saioaren bidez be dagozan bizilagunek arretaz espero dabez erantzunak.

Eta barriro esango deutsut datuak, datak eta kopuruak zehaztu daizuzala gustauko litxakigula. Eta zergaitik proponiduten dodan hori? Izan be, zuek, proiekturen bat lehentasunezkoztat joten dozuenean be horixe egiten dozuelako, eta horixe da orain eskatzen ari gatzatzuezana. Eta adibide argi-argiak daukaguz: Hegoaldeko saihsbidea, itsasadarpekoa... Daborduko zehaztu deuskuzue lizitazino-datak, proiektuak gauzatzeko datak, eta bi errepideen inaugurazino-data posiblea emotera be ausartu zarie.

Bada, horixe da, hain zuzen be, Errekalderako eskatzen deutsuguna, egin daizula, ausartu be egin zaitezala. Okertu egin zeintekezala? Ziur nago auzotarrek parkatuko deutsuena, baina ausartu zaitez, emiozue beste proiektu batzuei emon deutsezuen lehentasun bera. Eta esamoldea ixten badeustazu, Pradales jauna, busti zaitez, ez eizu atxakiakaz erantzun.

Halanda ze, zure agerraldiaren zain gagoz, baina nire taldetik, EH Bildutik barriro be ahalik eta zehaztasun handiena eskatu gura deutsugu aitatu deutsuguzan gai horreei guztiei buruz.

Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Pradales Gil, tiene usted la palabra.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Señora Presidenta, junteros y junteras, buenos días a todos/as, también a los vecinos y vecinas que han venido de Rekalde, buenos días.

Ha habido mucha sal gorda en esta primera interpelación, ¿verdad? Palabras rotundas, pero creo que conviene ir a cosas concretas y recordar y mencionar de nuevo lo ya manifestado.

Hain zuzen be, joan dan apirilaren 27an, Batzar Nagusietako kontroleko Osoko Bilkuran, EH Bilduk saihsbideari buruz egindako galderei erantzunez, nire ustez, legegintzaldi honetan bertan prestetan ari garan Errepideen Lurraldeko Arlokako Plan barria izapidetzeko gidea dan horretan jasota datorren testua gogorarazo neban. 2019ko urtarrilean Batzar Nagusiek onartu eben gidalerro eta erispide orokorren dokumentuaz ari naz, talde batek egindako 2 urte baino gehiagoko lanaren ondoren. Talde horrek persona desbardin askoren parte-hartzea izan eban, ez bakarrik alderdi politikoena. Uste dot merezidu dauela barriro berbaz berba aitatztea, eta zehaztasunez 25. orrialdea.

Honelan dino:

“Aurrekoa gorabehera, lantaldeak argi eta garbi transmitidutako sentiberatasunak ikusita, uste da Plan Posibilistearen barruan (POSIBILISTEA) lehentasunezko jarduketatzat jo beharko dala Errekaldeko Saihesbidea gauzatzea. Era berean, konpromisoa hartzen da tramiteetan eten barik egiteko aurrera. Horretarako, bada, uri-antolamendurako plan orokorra behin betikotasunez onartutakoan hasiko da eraikuntza-proiektua idazten, eta ingurumen- eta administrazio-izapideak egiten. Horretarako behar dan aurrekontu-hornidurea izango da”. Méndez jaunak barriro inoan.

Hain zuzen be, aitatu barri dodazan bi paragrafo horreek ezin hobeto laburbiltzen dabe Foru Aldundiko Gobernuaren jarrera ofiziala. Izan be, gidalerroen dokumentua Foru Gobernua osotzen dogun alderdi politikoen bultzadaz onartu zan, eta deigarria da gaur be paragrafo eta lehentasun horreek gogorazoten deuskuezanek konpromiso horren alde bozkatu ez izana. Benetan deigarria da. Bi paragrafo horreetako jarrera hori behin eta barriro jakinarazo jake auzo-plataformako ordezkari; gaur batzuk gugaz dagoz, ez dago gure artean José Luis Padilla, bileretako klasiko bat izan dana, edo badagoala uste dot, ez dot ikusi lehen, bai, badago.

Izan be, azkenengoz, joan dan zemendiaren 15ean izan zan. Eta gaur goizean be aurreko bi itaun horreetan behin eta barriro gogoratu dan lez, Udalak Plan Orokorra joan dan martiaren 31n onartu eban, eta apirilaren 4an argitaratu zan. Bilboko Plan Orokorrak Errekaldeko saihesbidearen bigarren aukerea jasoten dau, hemen historia luzea dago-eta. Hiru alternatiba egozan, eta bigarren aukerea berbatu zan, eta horixe da jaso dana. Eta gogora ekarri gura dodaz honakoak: alternatiba hori geografikoki A-8 autobidearen hegoaldeetik igaroten da, eta 2.230 metro inguruko trazadura barria dauka A-8 autobideagaz lotzeko puntuen artean. Ibilbide hori galtzada bereizi bik osotzen dabe, bata Gipuzkoarako noranzkoan, 2.365 metroko luzerea daukana, eta bestea Kantabriarako noranzkoan, 2.097 metroko luzereagaz. Galtzada horreek Masustegiko zubibidearen eta El Fangoko kiroldegi eremuaren artean zabaltzen dira batez be. Horreen oinplanoko diseinuan bihurtzeko tarteak ezarri dira, eta horreetan erradio minimoak honako honek dira: 545 galtzada metro Gipuzkoako noranzkoan, eta 560 metro Kantabriako noranzkoan. 80 km/h-ko batez besteko abiadura ezarten dau. Ibilbidearen zatirik handiena lurpean edo tunelean doa; izan be, zatiak 3.520 m-ko galtzadea dauka norabide bakarrek tunelean, eta horreetatik 1,846 km Gipuzkoarako noranzkoan, eta 1,67 km Kantabriako noranzkoan. Galtzada baktzak hartzen dauen sekzino-tipoak 3,30 metroko zabalerea daben 3 erreil daukaz, metro bateko bazterbideak eta 0,75 metroko gitxieneko zabalerea daben espaloiak. Gainera, lurpeko bide-zatietan eta abarretan erre-antolaketa horri eusten jako. Hau da, hemen alde zurretik zeregin batzuk dagoz urtenbiderik egokiena Udalagaz beragaz adosteko.

Eta batzuetan zubibidea eta berori berehala erastea eskatzeko ateraten garanean tribuna honetara ahaztu egiten dogu Errekaldeko zubibidea kentzeko bi obra egin behar dirala. Lehenengoa saihesbidearen eraikuntzea da, eta bigarrena erastea, alternatibarik ez badago ezin da-eta eratsi. Eta hori batzuetan alde batera ixten dogu, baina beharrezkoa da esatea.

Era berean, uste dot danok dakigula obrei ekiteko unea heltzen danean behar besteko aurrekontu-zuzkidurea izateak berebiziko garrantzia daukana, garrantzi eta gaiztasun handiko obra baten aurrean gagozalako, eta jakin behar dalako Foru Aldundiak bide-azpiegituren arloan daborduko konpromiso batzuk hartu dauzana, eta hori be gogoratu behar da. Eta hori gidalerroen agiriak be gogorazoten dau 24. orrialdean. Edozelan be, garrantzi eta gaiztasun teknikoko eraikuntza-proiektu bat izapidetzek, gogora ekarri dogun lez, bide luzea eskatzen dau gainditu beharreko izapideak aztertzeko (urigintzakoak, administratiboak eta ingurumenekoak...), eta joan dan apirilaren 27an

aitatu banebazan be, gaur zehaztapenean apur bat gehiago geldituko naz (orduan ahozko galdera bat zan eta denpora gitxi geunkan-eta).

Saihesbidearen eraikuntza-proiektua egiteko, hau da, eratsi aurretik behar dogun alternatibea, aurrekariak, oinarritzko urigintza-informazinoa, oinarritzko ingurumen-informazinoa, oinarritzko informazino geoteknikoa eta aurretiazko lan guztiak aztertu behar dira, baldintza-agiri bat egiteko puntu kritikoak eta epeak identifikatu ahal izateko. Eraikuntza-proiektuaren lizitazio-plegua prestau behar da, eraikuntza-proiektua kontratau behar da, eraikuntza-proiektua egin behar da eta eraikuntza-proiektua amaitu: 48 hilebeteko lana.

Behin eraikuntza-proiektua daukagunean, saihesbidea eregi behar da eta, ondoren, zubibidea eratsi, horreek dira helburuak. Saihesbidea eregiteko, saihesbidearen obren lizitazio-plegua prestau behar da, obra horreek kontratau behar dira, obrak egin behar dira, eta zubibidea eratsi behar da: 68 hilebete gehiago.

116 hilebeteko etenbako lana, hori da errealidadea, Méndez jauna, horixe da errealidadea. Errekaldeko saihesbidea eregiteko eta egungo zubibidea erasteko, beraz, ahalegin tekniko eta administratibo handia egin behar da eta, beharrezkoa balitz, aurrekontuetan be bai. Proiektu gatxa da, luzea denporan, sano handia, eta eragin sano garrantzitsuak daukaz funtzionaltasunaren ikuspegitik, A-8 autobideko hegoaldeko saihesbidearen ikuspegitik. Ez daigun ahaztu bertatik milaka ibilgailu igaroten dirana goizero, arrastiro eta gauero. Urigintzako ikuspegitik, auzoan bertan eta inguruan aitatu diran eraginakaitik, sortzen dauzan ingurumen-afekzinoakaitik tunelean eregi behar dogu dana, tunel bat eregi behar dogu, horrek dakarrenagaz. Halanda ze, uste dot hori guztia aintzat hartu behar dogula.

Bilboko Plan Orokorra onartu ondoren, eta Batzar Nagusietan Foru Gobernuaren proposamenez onartutako gidalerroen agiriak jasoten dauen moduan, informazino geoteknikoa, ingurumenekoa, urigintzako eta funtzionala aztertzeari ekin deusagu, eta horri esker eraikuntza-proiektuaren lizitazio-plegua prestetako behar doguzan puntu kritiko horreek identifikatu ahal izango doguz. Eta lan horretan 6 hilebetez egon beharko gara. Ondoren, eraikuntza-proiektua kontratau beharko dogu.

Azken baten, eta ostera be lehengo eguneko berbetara bueltauko naz: aurrera al goaz? Bai, jakina, gaur egun posible dan neurrian, aurretiazko analisi-lan horreetan guztietan, eraikuntza-proiektuaren idazketea behar dan moduan prestetako aurretiazko azterlanetan; eta hori ondo egin behar dogu, urratsez urrats, arin joan barik, eta indarrean dagoan legedia errespetata, jakina.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pradales Gil. Y pasaremos al turno de réplicas. Para ello, el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Pradales jauna, zure azalpenean nik neuk atxakiak baino ez dodaz ikusten. Nire ustez, nire alderdiak eta EH Bilduk egindako itaunek helburu argia eben, hau da, zure kudeaketan lehentasunezko hartu daizula Errekaldeko saihesbidea. Uste dot

Bilboko bizilagunek, hemen dagozan bizilagunek merezidu dabela zure Sailak saihebidia lehentasunezko hartu dagiala.

Esan deusudan lez, atxakiak aitatzen deuskuzuz, gaur itauna aurkeztu dogun taldeok onartu ez genduan lurralde-plan sektorialaz; izan be, errepideen lurraldeko planak Juan Palomoren itxurea dauka: “neuk sukaldatu eta neuk jan”. Zeuok egiten dozue, zeuok ezarten dozue eta gero, gainera, ez dozue beteten. Zuok plan posibilistea aitatzen dozue, baina zuon jarduketeagaz posible dana ezinezko bihurtzen ari zarie. Izan be, posible dira, eta zuok beti egiten dozuezan jarduketakaz ez dozue aurrera egiten (izan be, esan dodan moduan, 50 urte daroaguz), eta Errekaldeko saihebidian lan egiteari uko egiten deusazuela berresten jarraitzen dozue.

Eraikuntza zubibidea erasteko egozan aldaerak eta alternatibak izan dozuz berbabide, eta zubibidea eratsi orduko saihebidia egin behar dala dinoskuzu. Hori danok dakigu, hemen gagozan guztiok dakigu bestea egin behar dana. Eta gero, erretolika sano luze-luze bati ekin deusazu: “egin behar da”, “egin behar da”, “egin behar da”, “egin behar da”, “egin behar da”. Ez dakit, galdu egin naz zerrenda horretan. Bidean hamabi “egin behar da” barruntau dodaz, baina gauzatu da egin behar dana. Horixe da itaun honetan proponiduten deusuguna, gauzatu egin behar dozu. “Egin behar da” horreek baztertu. Izan be, “egin behar da” horreek orain, kanpainan aitatzen dozuezan hauteskundeetako promesa horreek lakoak dira; “egin behar da, egin behar da, egiten noa, egiten noa...”, eta gero ez dozue ezer egiten. Halanda ze, gauzatu da egin behar dana, eta hasi. Eta horixe da lana.

Denporan zehar ahalegin administratibo izugarri handia egin behar dozula aitatu dozu. Ba berba gitxiago eta hasi zaitez. Hasi zaitez, hori da-eta gura doguna. Zera esan deiguzula gura dogu: “hain egunetarako aurretiazko azterlana prest egongo da”. Izan be, gaur analisi batzuen azterlanak, aurretiazko azterlan batzuk hasi dirala esaten hasi zara.

Hara, nire ustez, Pradales jauna, personak ez dagoz zure ikuspegiari, personak leku marjinala beteten dabe zure politikan, zure Sailaren politikan personak ez dira subjektutzat hartzen, ezpada helburutzat. Zuon bidesariakaz, kanonakaz, Hegoaldeko saihebidia lako mega-azpiegituretarako milioika euroak ordaintzeko zergadun moduan hartzen dira, edo bidesariak ezarteko. Izan be, ezin deuskuzu buruan sartu Hegoaldeko saihebidierako ehunka milioi edo, lehen esan dodan moduan, gure errepideetan bidesariak ezarteagaitik kanon bat kobretako 60 milioi euro bideratzea Errekaldeko bizilagunek sufriduten dabezan sufrimentuak baino lehentasunezkoagoa dala.

Nik, benetan, galdetu egiten deusut ea zeozelan defendidu zeinken zure sailaren lehentasuna baliabideak desbideratzea dala, Errekaldeko herritarrek hamarkada luzeetan euren gainetik zubi bat jasan daben bitartean. Eta badaukazuz baliabideak, bertako bizilagunek esaten eutsuen lehengo egunean, joan dan egunean Bilbon kartelakaz manifestau ziranean. Badago diru nahikoa, Aldundi honen diru-bilketak gora egiten ari dira, azken datuen arabera 2021ekoaren aldean %14,7 gehiago, ia 300 milioi geldikin dagoz, dirua dago, baina ez dago lehentasunik. Eta gure alderdiaren itauna horixe da: zergaitik ez dozu lehentasuntzat jarten zure Sailean Errekaldeko zubibidearen eraspena? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecochea. Continuando con las réplicas, el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, gracias de nuevo, señora Presidenta.

Como he manifestado antes, nuestra intención era mirar hacia delante, y al principio pensaba que ese no sería el camino, pero al menos al final, parece que con las fechas que nos ha facilitado todos continuaremos en esa dirección, o al menos, con esa perspectiva desde ambas partes.

Hace un mes lancé que somos conscientes de que el camino será largo, y si no recuerdo mal, le dije en el anterior Pleno de Control que podía ser una obra de una duración de 94 meses, casi 8 años para que este proyecto sea una realidad. Por lo tanto, creo que debemos tener en cuenta eso, porque no podemos esperar ni un minuto más para poner en marcha este proyecto. Y por eso nuestra pregunta era la siguiente:

¿Qué pasos concretos dará la Diputación?

Y usted ha señalado... Gaur, tira, lehenengo zatian Andrade jaunak zera esan deutsu, aurretiaz lan horreek egin behar dirala, puntu kritikoak, eta aurrera egin. Zortzi alditan esan dozu “egin behar da, egin behar da, egin behar da, egin behar da...”. Tira, jarri gaitez martxan. Eta 48 hilebeteko lana aitatu dozu. Hasi gaitez kontetan eta 6 hilebetetan aktibau egingo dozue, txarto ez badot ulertu. Gustauko litxakit argitzea ea lan horreek modu jarraituan antolatzeko 6 hilebete horreen ondoren, akordioan jarten dauena, eraikuntza-proiektuaren lizitazioari bidea emongo deusazun, erdi esan dozu-eta, baina “jarraitasun” berba hori ez dozu aitatu, eta akordioan jasota dago. Gero, beste lau aldiz esan dozu “behar da, behar da, behar da, behar da”, behin betiko prozesuen pleguei eta lizitazioei jagokenez, eta barrero beste data bat emon dozu: 68 hilebete.

Batuketa arin bat egin dot, eta ez dot uste okertu nazanik: 116 hilebete. Lehen aitatu deusudazan 94 horreek baino zeozer gehiago. 9 urte eta erdi. Nik busti zaitezala eskatu deusut, ausartzeko eskatu deusut. Ausartuko al gara? 2031. urtea Errekaldeko saihebidia martxan jarteko eta gero zubibidea erasteko? Ausartuko al gara? Titular ona izan leiteke gaur bizilagunei emon gura badeutsezu, eta uste dot komunikabideek jasoko dabela. Zenbakiak ados egon naiteke.

Zenbakiak berbabide daukaguzala..., ez da obrearen gaiztasun hori esan ez danik, eta EH Bilduk bat egin dau horregaz, eta Edesa andrea talde politiko guztiakaz solasaldi baten egon zan, eta hilebete-kopuru horri buruz berba egiten aritu ginan. 94 izan leitekez, 116 izan leitekez, uste dot hori ez dala eztabaidea. Ea gaurtik aurrera martxan jarten garan da eztabaidea, 6 hilebete horreek aktibetan doguzan, eta “jarraitasun” berbea grabau daizula gustauko litxakit, prozesu osoan zehar erabiliko dogu-eta atzerapausurik egon ez daiten, zuk aitatu dozun denpora-dekalaje hori guztia hasten dogunean ez daiten egon atzera-egiterik.

25. orrialdea aitatu dozu, Batzar Nagusietan egindako akordioa. Gogorarazoten deusut 25. orrialdeko testu horren proposamen ia osoa EH Bildurena zala, eta EH Bilduk dokumentu horren globaltasunaren aurkako jarrera eukala, eta puntu hori eta beste alderdiren bat sartu izanari esker abstenidu egin ginala, zuk badakizulako kritikoagoak edo beste proiektu batzuen aurkakoak garala, baina ez honegaz. Halanda ze, aldeko botoa ez emoteak ez dau esan gura ez dogunik partekatzen, eta hori hor sartuta egotearen errazoia zein dan gogorazoz gura dogu. Beraz, ez daigun ikuspegi hori galdu.

El presupuesto es importante, usted no ha mencionado nada al respecto. Desconocemos si existe presupuesto o no. Lo que tenemos claro es, y lo dijimos también la vez anterior, que el Diputado General lanzó que sí existen remanentes de crédito, y que existen 150 millones para llevar adelante proyectos como este.

2022ko aurrekontuakaz konprometidu zaitezela eskatzen deutsugu, eta, posible ez bada, 2023koakaz. Zera esan dozu: 6 hilebete eta eraikuntza-proiektua geratuko litxakigula. Hortxe daukazu helburu bat. Kontuan hartu eizu, zeuok eskatu ezik badakizu-eta zein izango dan gure eskaerea aurrekontu-eztabaida horretan. Izan be, gure ustez, eraikuntza-proiektuak datorren urteko aurrekontuetan sartuta egon behar dau, argi eta garbi, eta hori aurrera eroan beharko zeunkie.

Amaituko dot, eta ez dot gura ulertu daizuen hau EH Bildugaz konpromiso bat danik, ezta konpromiso bat Batzar Nagusiakaz sinatuta dagoalako be. Hau da, gure ustez, talde politikook eta erakundeok akordio batera heltzea ahalbidetu dauen tresna bat besterik ez gara izan, eta orain zure gobernuari betetea jagoko, eta hori da Errekaldeko bizilagunakaz daukagun konpromisoa, guztion artean lortu geinkezan bizi-baldintza hobek merezidu dabez-eta.

Eta bukatzen noa. EH Bildun argi daukagu; personek proiektuen gainetik egon behar dabe, baina emoten dau zuek gobernetan dozezan erakundeek ez dabela gauza bera pentsetan, edo ez deutzazuela lehentasun bera emoten. Barrero dinotsut: hartu eizue lehentasunezko zat proiektu hau, eta emon daigun gaur lehenengo pausua proiektu hau konpontzeko, aurrera eroateko. Eta ea 2031. urtean Errekaldeko bizilagunek euren ametsetako bat eta daukien defizitetako bat beteta ikusi ahal daben. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Pradales Gil, tiene usted la palabra.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Sí, buenos días.

Bitxia da, Andrade jauna, Pilar Careaga izan zalako zubibide hori inaugurau ebana, baina tira, historiak gauza horreek daukaz.

24. orrialdea eta 25. orrialdea. Ez dot dokumentuan denporarik emon gura, baina hainbat gauza dinoazan 25 orrialde daukazan agiri bat onartu dogu, eta ez zenduen aldeko botorik emon. Zer gura dozu esatea. Horixe da errealidadea. Hartu eizu Batzar-agiria, eta irakurri eizu 24. orrialdea be, bertan plan posibilistea eta horrek zer esan gura dauen aitutzen da-eta. Baina, tira, gaur gai batzuk zehaztu doguzala uste dot. Pausuak emoten jarraitzen dogu, eta funtsezko zat joten dodan zeozegaz geratuko naz. Daborduko ekin deutzagu analisiari, hasi dogu daborduko analisia, lizitazio-agiria prestetako behar doguzan aurretiazko azterlan horreek, eta gainera, esan dot 6 hilebeteko lana dala, eta, gainera, esan dot gero eraikuntza-proiektua kontratau beharko dogula. Ez dakit zer ez dan ulertu esan dodanaz. Uste dot nahiko argi itxi dodala.

Gaur egun fase horri ekiteko beharrezkoak diran baliabideak ditugu, ez dogu aurrekontu-zuzkidura gehigarrik behar, Sailak badaukazalako behar beste baliabide analisi hori eta aurretiazko azterlan horreek egiteko. Halanda ze, ez dogu behar. Eta uste dot gaur gai izan garala tribuna honetan Foru Aldundiaren epeak bere egunean egin ahal izan genduana baino askoz gehiago zehazteko, besteak beste, eraikuntza-proiektuaren eta, halan bajagoko, obren azterlanen kontratazinoak egiteko legez aurreikusitako epeak gehitzen ari garalako. Beraz, hortik ateraten dira 116 hilebeteak.

Eta hori ez da Errekaldeko saihebidetako bakar-bakarrik; unada honetan hondino lanean ari gara itsasadarraren azpiko tunelen edo Lamiako itsasadarpekoaren proiektu teknikoan be, eta gogorarazoten deutzuet 2016an hasi ginala

alternatibez berba egiten, eta 2018an aurkeztu genduala zein zan aukeratutako alternatibea. 2022an gagoz, eta pausuak emoten jarraitzen dogu. Hondinokarren ez doguz obrak hasi, hau da, tamainu honetako proiektuak, konplejutasun horretakoak, sano proiektu luzeak dira denporan zehar. Garrantzitsuena zera da, gaur hasi garala lanean aurretiazko azterlan horreekaz eta azterketa horreekaz, eta horreek lizitazino-plegua prestetea ahalbidetuko dabe jagokon eraikuntza-proiektuari ekiteko, behin 6 hilebete horreek amaituta.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pradales Gil. Al haber sido retirado el punto tercero, pasaremos a continuación al punto quinto.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0001050](#))

Autor: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Asunto: El despliegue del Estatuto de las Personas Cuidadoras al conjunto del territorio.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0001050](#))

Expediente: ([11/B/18/0003471](#))

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0001050SE](#))

Egilea: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Gaia: Zaintzaileen Estatutua lurralde osora zabaltzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0001050SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0003471](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Izaskun Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Buenos días a todos/as.

Hemos señalado a menudo en esta Cámara que la vejez y las políticas de cuidados constituyen un reto social colectivo. Probablemente sea uno de los retos más importantes para los próximos años y generaciones. Y para abordar este reto los/as miembros de EH Bildu creemos que necesitamos políticas públicas valientes, transformadoras, acuerdos amplios, en definitiva, un pacto de país. Una estrategia de país para abordar este reto.

Mientras tanto, en lugar de realizar una profunda transformación, que será integral y que mantendrá el equilibrio de los territorios de nuestro país, las distintas administraciones ponen parches, cada institución, cada territorio lleva a cabo diferentes políticas públicas, y presenta sus propias iniciativas. Y en este marco la Diputación de Bizkaia aprobó en la anterior legislatura el Estatuto de las Personas Cuidadoras.

Como decía, creemos que precisamos de un pacto de país, una estrategia de país, pero nuestra responsabilidad política también es intentar mejorar esas herramientas y políticas públicas que se presentan o que tenemos. Y por esta razón a principios del año 2020 presentamos también en enero a esta Cámara la interpelación al diputado de Acción Social, y en el siguiente Pleno la moción derivada de la misma con 4 medidas o 4 propuestas concretas.

Beharbada, datozan urteetako erronka handienetako bat daukagula datozan belaunaldientzat esan dot, hau da, zaintzearen politika publikoen erronkea. EH Bildun behar eta erronka sozial horreei erantzuteko betebeharra eta erantzukizun politikoa sentiduten dogu, eta uste dogu gizarte lez estrategia kolektibo bat behar dala, eta hori behin eta barrero esan dogu, baina gure erantzukizun politikoiari be erreparetan deusagu, eta uste dogu proposamenak egin behar doguzala gaur egun daukaguzan baliabideak eta tresnak hobetzeko. Eta 2020. urtearen hasieran, hori dala eta, lau puntuko mozino bat proponidu genduan, Jagoleen Estatutuan hobekuntzak ezarten saiatzeko.

Gaur barrero dakargu. Eta Sergio Gizarte Ekintzako diputuari gogorarazo gura neutsan Jagoleen Estatutuaren jarraipena egingo genduala esan neutsala orduan, EH Bildurentzat zainketak eta zainketa-politika publikoak lehentasuna dirala, eta gai hori barrero ekarriko genduala Ganbera honetara, eta horrelantxe egin dogu.

Y por dicha razón presentamos al diputado de Acción Social esta interpelación. El despliegue del Estatuto de las Personas Cuidadoras al conjunto del territorio es una de las actuaciones recogidas en el Plan Bizkaia Egiten 2019-2023. Se recogía ahí. Y en el informe del seguimiento del Plan Bizkaia Egiten 2021, en la ficha correspondiente al despliegue al conjunto del territorio, podemos leer que la actuación está finalizada. Por lo tanto, en dicho informe se recoge que el Departamento de Acción Social ha dado por finalizada esta actuación. Y en relación a las medidas realizadas dice lo siguiente, les leeré lo que dice:

“A lo largo del 2021 se han habilitado nuevas plazas de estancias temporales para personas con discapacidad, se ha modificado el decreto foral por el que se regula la prestación vinculada al servicio de respiro y, a su vez, -dice-, se ha desplegado Zaintza Eskola en 6 nuevos centros: Etxaniz, Getxo, Basauri, Sestao, Durango y Zamudio”.

Se ha hecho así, pero ¿significa ello que la actuación se encuentra ejecutada? Es decir, ¿Ya se ha desplegado el Estatuto de las Personas Cuidadoras al conjunto del territorio?

EH Bildu considera que la implementación de una serie de medidas no supone que hayan sido ejecutados los derechos que el Estatuto de las Personas Cuidadoras reconoce a las personas cuidadoras no formales. Se ha desplegado Zaintza Eskola en 6 nuevos centros, sí, pero otra pregunta: ¿cuántas personas cuidadoras participan en esa Zaintza Eskola?

Teniendo en cuenta que a todas las personas cuidadoras no formales vinculadas a la prestación económica para cuidados en el entorno familiar les asiste el derecho a recibir formación, los datos son muy preocupantes. Ha participado en el curso iniciado el 6 de noviembre de 2021 un 0,5%.

Y otra vez las preguntas:

¿Por qué no participan más personas cuidadoras en esta Zaintza Eskola? ¿Han reflexionado ustedes sobre ello en el Departamento de Acción Social?

También son preocupantes los datos de las personas cuidadoras que ejercen su derecho al descanso. Pese a que son más las personas cuidadoras que han solicitado un descanso de 15 días, gracias al cambio realizado, aún son muy pocas: 221 personas cuidadoras en el segundo semestre de 2021, cuando las personas cuidadoras no formales vinculadas a la prestación económica para cuidados en el entorno familiar superan las 20.000.

Zenbat jagolek hartzen dabe parte prestazino horreetan? Kontuan hartuta familia barruan Jagoteko Prestazinoari loturiko jagole ez-formal guztiek eskubidea dabela formakuntzea jasoteko, datuak sano kezkarriak dira: %0,5ek hartu dau parte 2021eko zemendiaren 6an hasitako ikastaroan. Jagole ez-formal guztien %0,5 da formakuntza-ikastaro horreetara joan dana. Gure ustez datu kezkarria da, edo, behintzat gauzak ondo egiten ari ete garan sakon hausnartzeko errazoa da.

Eta gure buruari galdetzen deusagu ea zergaitik ez dagozan jagole gehiago Zaintza Eskola horretako prestakuntza-ikastaro horreetan. Eta Gizarte Ekintza Sailean hausnarketa hori egin ete dan galdetzen deusagu gure buruari.

Eta beste datu batek be kezkatu egiten gaitu, hau da, atsedena hartzeko eskubidea darabilen jagoleen datuak. Eta hori 2020ko hasieran ekarri genduan proposamenetako bat zan. Izan be, ezpabere, hobekuntza batzuk egiten ez bagenduzan, eskubide horretarako sarbidea mugatua izango zala uste genduan, kontuan hartuta hondinokarren be ez dala bateragarria prestazino ekonomikoagaz, hau da, familia jagoleek, jagoleak eskubide hori 15 eguneko atsedendian eskuratzen dauenean, berehala eten egiten dala bere senidea edo hurrekoa jagoteagaitik jasoten dauen prestazino ekonomikoa, eta uste dogu hori eragozpen bat dala eta harenbaten eragozpen bat baino gehiago egon leitekela, eta gure ustez horrek gogoeta sakona egiteko errazoa be izan behar dau, hau da, Estatutu horretan jagoleek autortuta daukien eskubide hori hazteko edo eskubide hori persona gehiagok eskuratu dagien zelan egin geinken hausnartzeko.

Izan be, datuen arabera 2021eko bigarren seihilekoan 221 jagolek eskatu eben atsedenerako eskubide hori; 20.000 milatik gora diranean, 221 personak eskatu eben. Emon zeunskuezan azken datuen arabera, uste dogu 21.000 inguru dirala. Gure eretxian, 21.000 jagoletatik 221 sano-sano ehuneko txikia da.

2021eko Jarraipen Txostenean ez da ezer aitatzen Kasuen Koordinatzaileari buruz. Durangaldeko Proiektu Pilotuaren balantzean Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputadu jaunak irudi horren beharra azpimarratu eban, jagoleen informazino-eskubidea erabilteari begira.

Eta 2020an, pandemiaren ondorioz, ez zan zabaldu. Esan zeunskuen, begi bistan egozan oztopoakaitik, ez zala zabaldu kasuen koordinatzailearen irudia. Ez dakigu 2021ean irudi hori indartu eta zabaldu dan.

Eta horregaitik egiten deusaguz galdera batzuk Gizarte Ekintzako diputaduari.

Y las preguntas son:

¿Realmente creen que la actuación de despliegue del Estatuto de las Personas Cuidadoras a todo el territorio está finalizada?

¿Cómo valoran la participación que se está dando en la Zaintza Eskola?

¿Cuáles son las medidas que van a implementar para conseguir una mayor participación de las personas cuidadoras no formales?

Y teniendo en cuenta que en muchos hogares que reciben la prestación económica para cuidados en el entorno familiar la persona cuidadora real es una persona empleada del hogar, ¿han dado pasos para que las personas empleadas del hogar puedan participar en la Zaintza Eskola y obtener el Certificado de Profesionalidad?

Y por último, ¿cuáles son los pasos que van a dar para reforzar y desplegar la figura de la persona coordinadora de casos?

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora Presidenta, junteros y junteras, buenos días a todos/as.

En nombre del grupo Euskal Herria Bildu, la señora Izaskun Duque Santacoloma me interpela sobre el despliegue del Estatuto de las personas Cuidadoras a todo el territorio. Concretamente, me pregunta por el hecho de dar por finalizada la actuación en el Plan Bizkaia Egiten, y por las líneas de trabajo abiertas al amparo del Estatuto. Me han preguntado a menudo en esta Asamblea General sobre este asunto, así es, usted misma lo ha aceptado, y yo también iniciaré mi intervención en este caso con una respuesta similar.

En los últimos días de 2018 se publicó el Decreto Foral 192/2018, por el que se aprueba el Estatuto de las Personas Cuidadoras de Bizkaia. Esta normativa fue pionera, y hay que reconocerle al Gobierno Foral que fue pionero, y que fue un avance firme en el reconocimiento de los derechos de las personas cuidadoras.

Sin embargo, estos derechos no se ejercen por mero reconocimiento, lo aceptamos también en el Gobierno Foral. En cuanto a las líneas de trabajo de la política pública, hay que materializar esa forma jurídica, en cuanto a las políticas públicas, y en ello estamos desde 2019, de lo que les he informado en esta Asamblea General, ya lo ha dicho usted en varias ocasiones; pero yo en esta última legislatura voy a recordar en concreto las de 29 de enero de 2020, 24 de noviembre de 2021 y 23 de febrero de este año, y en las comisiones se han mencionado al menos en otras tantas ocasiones.

Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontsejuak onartu eta horren ostean, 2018ko abenduan, Jagoleen Estatutuari buruzko 192/2018 Foru Dekretuaren argitalpena aurrerapausu ausarta izan zan gure lurraldeko jagoleen eskubideen alde. Hori be berbaz adierazo daizuela gustauko litxakit.

Ordurik hona, Foru Gobernua urrats sendoak emoten ari da Bizkaian eskubide horreek gauzatu ahal izan daitezkan. Izan be, gaur egun, eskubide horreek gauzatzeko lan-ildoak martxan dagoz. Horri egiten deuto erreferentzia Bizkaia Egiten balantzeak. Eskubide horreek gauzatzeko lan-ildoak abiarazota dagoz.

Resulta innegable que hemos puesto los medios para ejercer los derechos de las personas cuidadoras. En el documento Bizkaia Egiten nos comprometimos

a difundir estos medios por todo el territorio y hoy en día todas las líneas de trabajo están desplegadas. Por eso decimos que ese compromiso está encauzado. Por eso me referiré, y de forma concreta, a cada línea de trabajo.

Jarduketa-lerroen, zerbitzuen eta programen bitartez baldintzak sortu ditugu jagoleek prestakuntzarako eta atsedenerako eskubidea erabili ahal izan dagien, eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz komunikazino hobea izateko bideak gaitu doguz.

Trataré cada una de las líneas de trabajo de una en una.

Atsedenerako eskubidearen eremuan. Labur-labur egingo dot, baina 2018tik aurrera bateragarriak dira familia-inguruneko jagoteagaitik prestazino ekonomikoa eta honako zerbitzuak: eguneko zentroak, zentro okupazionalak, autonomia personala sustatzeko zentroak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua. Bateragarritasun horren bidez 1.275 personak baino gehiagok hartzen dabe atsedena. Badakit hori ukatzen dozuena, hori ez dala atsedenerako formula bat dinozuena, baina hori atsedenerako formula bat da. Mendetasun-egoeran dagoan pertsona zerbitzu horreetako batera joatea atsedenerako formula bat da ohiko jagolearentzat. Nik jarraituko dot esaten hori be atsedenerako formula bat dala.

Baina, tira, beste atsedenetara joango naz, horreek azpimarratzen doguz-eta. 2019ko amaieratik Bizkaiko jagoleek 15 eguneko atsedeen-prestazinoa dabe egoitza baten. 2021ean, pandemia testuinguru baten be, tramitazino hori egokitu eta erraztu genduan. Eta 2022ko lehen lauhilekoko datuak dakartsuedaz, urtarrila, zezeila, martia eta apirileko datuak, 2021eko urtarrila, zezeila, martia eta apirileko hilebetekoakaz alderatuta; izan be, zezeilan, orain dala 3 hilebete, bilakaera positiboa ikusten genduan. Bada, 2021eko eta 2022ko lehen lauhilekoen arteko konparazinoak 5 aldiz biderkatzen dau onuradunen kopurua. 2021ean 13 persona egozan lehenengo lauhilekoan, eta 2022an 73. Aurreratu deusuet: hazkunde esponenzialak, eta horixe da ikusten ari garana. Itxi daiguzan eskubide batzuk, politika publikoko tresna batzuk “finkatu” daitezcan, garatu daitezcan, eta euretara eskubidea daukien pertsonen eskatu dagiela eta erabili dagiezala.

Eta horri desgaitasunen bat daukien personentzako atsedeen-lekuek %33ko igoerea izan dabela gehitzen badeutsagu (Santurtziko eta Mundakako egoitzen bitartez gauzatu dana), bada, jagoleen atsedena bideragarriagoa ei da gaur egun, askoz be bideragarriagoa, eta lan-ildo hedatua eta sakondua, 2018an Jagoleen Estatutua onartu zanetik.

¿Finalizada? Pues bien, en los servicios sociales siempre hay dónde mejorar, especialmente porque tenemos que estar atentos a las necesidades sociales, ya que les he dicho que había que transformar las respuestas para adaptarlas, pero en la actualidad estamos haciendo, desplegando y profundizando en ese derecho. El principal ejemplo es la moción aprobada por ustedes el pasado día 23 de marzo en esta Asamblea General, y en este sentido habrá novedades, mejoras, avances. Seguimos desplegando y profundizando en los modos de ejercer ese derecho.

Baina ez dot prestakuntzarako eskubidea ahaztu gura. Zaintzen oinarrizko beste zutabeetako bat da, hobeto jagoteko eta norbere burua be jagoteko, baita familiako jagoleei etorkizunean enplegarritasuna ahalbidetzeko be. Aldunditik Zaintza Eskolearen bitartez egiten dogu, Santutxuko proiektuari egonkortasuna emon deusagu, bera izan zan-eta aitzindaria, eta 2021-2022 ikasturtean hondino hor gagoz bete-betean. Beste 6 gehiago zabaldu doguz, 6 aldiz biderkatu dogu. 2022 ikasturtean 6 horreei eutsiko deutsegu, gehi Santutxukoa, 7. Eta 2022-2023 ikasturtean gitxienez beste 3 zabalduko doguz.

¿Finalizada? No, continuamos avanzando, desplegando y profundizando, haciendo.

Y en el tercer bloque de sus preguntas, recordaré las palabras que le dije a usted aquí el 29 de enero de 2020. Porque el contexto de las competencias es igual, y lo que se dijo entonces vale también hoy. Es decir, lo que se dijo en relación al colectivo trabajador, a las cuidadoras, a los y las trabajadoras profesionales. Y diré lo que se manifestó entonces de forma literal, entre comillas:

“Existe un marco laboral, un marco que regula las relaciones laborales, y no es competencia ni de los Servicios Sociales, ni de la Diputación Foral ni de estas Juntas Generales regular esas relaciones formales. Cuando existen relaciones laborales formales, tanto para el cuidado como para otras funciones, esas se regulan en la normativa laboral. Esas competencias corresponden al Gobierno Vasco o al Estado, por lo que nosotros/as poco podemos hacer al respecto. A nosotros nos corresponde actuar debidamente dentro de nuestras competencias”.

Lan-arloko hartuemonak sortzen danean, etxeko giroan jagoteko eginkizunerako bada behar, hartu-emon horreek lan-esparrukoak dira. Eta behar besteko mekanismoak dagoz behargin horreen etenbako prestakuntzarako. Etenbako prestakuntzea deitzen da, eta Lanbiden (lehenago Hobetuz zana) tresnak egon dira. Tresna horreek erabili behar dabez persona horreek, eta eurekano jo behar dogu.

En efecto, cuando en el Estatuto de las Personas Cuidadoras regulamos un marco integrado en los Servicios Sociales, sí, hicimos una novedad ahí, y concretamente regulamos el de las personas cuidadoras informales, eso es lo que regulamos, lo que nos daría forma jurídica, y hoy construimos los instrumentos para su ejecución a través de las políticas públicas. Y esto es totalmente diferente del ámbito del personal de cuidados.

Por lo tanto, únicamente puedo responder a la tercera pregunta. Por consiguiente, me dirijo a la última pregunta, la de coordinación de casos.

Kasuen koordinazioaren figureari jagokonez, Jagoleen Estatutuaren 8.4 artikulua jasoten dauen moduan, jagoleek eskubidea daukie Foru Administrazioan erreferentziako persona bategandik informazioa jasoteko. Persona horrek esku-hartze integratzailea eskainiko deitso eta daborduko ezarrita dagoan arreta egokia ahalbidetuko deitso.

El 5 de junio de 2020 comparecí en la Comisión de Acción Social acerca del proyecto piloto realizado en Durangaldea. Por lo tanto, nos hemos aferrado a lo que se dijo, incluso en tiempos de pandemia.

Durangaldean garatutako kasuen koordinazioari buruzko proiektu pilotuaren ebaluazioan ondorioztatzen zan kasuen koordinazioa egokia dala, eta horrek Gizarte Ekintza Sailean egiten doguzan esku-hartzeak eraldatzea eskatzen dauela.

Lan haretatik, eta askoz gehiago barruko mailan, zerbitzuen antolaketan, telefono bidezko arretan eta informazio-sistemetan aurrera egin dogu. Eta, justizia poetikoa, zuek itauna egin baino bi egun lehenago, joan dan maiatzaren 10ean, familia-ingurune zainketarako prestazio ekonomikoari buruzko foru-aginduetan autorpen barriak agertzen dira, funtzionario publiko baten izen-abizenak agertzen dira, kasuen koordinatzailearenak, hatan be. Decir y hacer.

Hortik aurrera, banan-banan, prestazio barri bat emonda, kasuen

koordinatzailea esleituko deutsegu jagoleei eta mendekotasun-egoeran dagozan personei. Eta erreferentziarako personak izango dira mendekotasun-egoeran dagoan persona horren eta jagole horren zainketearen gaiei buruz berba egiteko.

¿Finalizado? No. Estamos en el inicio de un largo camino, pero las líneas de trabajo están realizadas, están puestas en marcha. Nos corresponde desplegar y profundizar. El punto de inicio de las líneas de trabajo para encauzar los derechos está establecido, tanto en la coordinación de los casos, como en los ámbitos de respiro y otras formaciones.

Urrats sendoak apurka-apurka eta eten barik doan zabalkundean, persona askorengana heltzen dana, erakunde barruan zein kanpoan, eta gure egiteko moduak hobeto egiteko egokitu behar doguz. Horretan ari gara. Iraupen luzeko zainketen trantsizino-prozesu baten gagoz. Zeuk be autortu dozu, hurrengo urteetarako eta gaur egungo erronketako bat da. Eta 2018tik gitxienez, Jagoleen Estatutuaren bidez, Foru Gobernu hau inplikauta dago. Eta etxeaz ari garala, ezin dogu ahaztu, jakina, iraupen luzeko zainketen trantsizino horretarako, zainketa-ekosistemen trantsizino horretarako, Foru Gobernuak Jagoleen Estatutuagaz 2018an egin ebana, eta eskubide horreek gauzatzeko politika publiko barriak ezarten jarraitzen dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. En el turno de réplicas, señora Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias al diputado Sergio Murillo por las explicaciones que nos ha facilitado.

Encauzado y finalizado no son sinónimos. Tal vez, en ese informe, en ese informe de seguimiento deberían ustedes poner “desplegando y profundizando” en lugar de “finalizado”, aspecto que podemos compartir. Pero no podemos dar por finalizada esta iniciativa, y usted también nos lo ha reconocido.

En todo caso, creo que eso puede ser un debate dialéctico, pero quisiéramos abordar unas cuestiones de fondo. Usted ha mencionado numerosos datos, muchas cuestiones en cuanto al respiro, 4 ejes en relación a las preguntas que hemos formulado, ha mencionado usted 4 puntos.

El primero de ellos, el respiro. Atsedenerako eskubidea, jagoleek daukien atsedenerako eskubidea. Eta bai, 2020. urtearen hasieran jaso genduan erantzun bera jaso dogu; izan be, orduan esan zeunskuen eguneko zentroak, zentro okupazionalak, zentro horreen erabiltzaileak eguneko zentro baten dagozanean, zentro okupazional baten, jagoleak arnasea hartzen ari dirala, atsedena hartzen ari dirala. Gitxienez argudio arriskutsua iruditzen jat.

Edozelan be, Jagoleen Estatutuan eskubide zehatz lez jasoten da 15 eguneko atsedenaldea. Guk horri egiten deusagu erreferentzia, eta ez gainerako baliabideei eta zerbitzuei, herritar guztiek dabe-eta eskubidea zaintza-premina horreek izateko. Eta datu zehatz-zehatzak jarten geuntsuezan mahai gainean, deigarriak iruditzen jatazanak, eta zuk aitatu ez dozuzanak. Bai, aitatu dozu 13tik 73ra hazi dala “despliegue y profundización” hori, baina zenbat da hori guztizkoa aintzat hartuta? Izan be, berba egiten ari gara eta barriro errepetiduten dogu, atsedena hartu daben personek, atsedenerako eskubidea izan dabenek (ez dot kalkulau, seguru Arantzak buruz egiten dauena), baina laguntza hori jasoten daben 21.000 persona horreetatik, Bizkaian daukaguzan 21.000

jagole horreetatik 221 personak baino ez dabe eskubide hori hartu. Nire ustez, sano gitxi da hori. Eta hausnarketa bat egiteko errazoi bat dala uste dot, hori da-eta planteetan ari garana. Neurriak ezarten saiatzeko, sakontzeko..., en ese derecho de despliegue y profundización.

Eta uste dogu 2020aren hasieran ekarri genduzan neurriak ildo horreetatik joiazala. Ados egon geintekoz edo ez martxan jarri beharreko neurriak horreexek dirala esaterakoan, baina urte batzuk igaro ondoren, datuek erakusten deuskue hobetzeko tarte zabala daukagula. Eskubide bat eskuratu leikien personen %0,5ek bakarrik hartu badabe, uste dot ondo-ondo ez garala egiten ari. Eta hori atsedenerako eskubideari jagokonez, baina esan dogun lez, prestakuntzarako eskubideari jagokonez be datuak sano kezkarriak dira, eta hor badaukat ehuneko hori, %0,5 baino ez. Datuak hotz-hotzak dira. Baina uste dot titular bat atera edo ebaluazino bat egin beharko bagendu..., gura badozu, gaur egun Jagoleen Estatutuak ehunekoetan edo kopuru aldetik itxi deuskunaren argazki finish bat egingo bagendu, nahiko kezkarria da. Eta esandakoa, uste dogu gai batzuk sartu geinkezala Jagoleen Estatutuan, “despliegue y profundización” hori hurrengo urteetan erreala goa izan daiten.

Eta tira, garai haretan be ekarri genduan etxeko beharginen gaia, eta barriro be berba egin dogu horretaz. Errealidade ezkutua dan arren, ez ofiziala, badakigu prekariedade-baldintza horreetan edo lan-autorpen bako egoeran jagole-lanak egiten dabezan andra askok (ia %100 migratzaileak dirala esaten ausartuko nintzateke), ez daukiezana euren senideak jagoten dabezan personen eskubide berberak, azken horreek Estatutu horretan autortuta daukiez-eta. Ulertzen dot zuk azaldu deuskuzuna, aurrekoan esan zeunskuna, baina gogorarazo gura deusut Lanbidegaz be berba egiteko konpromisoa hartu zenduela akordioaren bat edo hitzarmenen bat lortzeko, andra horreek prestakuntza hori jaso ahal izan dagien, eta apurka-apurka euren egoerea hobetu ahal izan dagien, edo euren ezagutzak homologau ahal izan dagiezan.

Eta azkenik, tira, ya no dispongo de tiempo. Continuaré en el siguiente Pleno, ya que volveremos a hablar de ello. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora Presidenta, muchas gracias.

He procurado responder a las preguntas, y a preguntas concretas. Pero tenemos que hacer un reconocimiento, tenemos que hacer un reconocimiento mutuamente. ¿Cuándo finalizará la puesta en marcha de las ayudas en los cuidados? De acuerdo, no hagamos entonces un debate dialéctico cuando estamos de acuerdo en el punto de partida, es decir, es un camino, es un camino que hay que hacerlo, un camino que tiene que ir adelante, y estamos en marcha. También les ofrezco, o les hago extensiva la oferta de hacer propuestas para acordar aspectos como las velocidades, y creo, además, que es evidente que estamos preparados para ello, para hacer un camino también en eso. Pero reconocamos algunas cosas: el derecho al respiro de 15 días lo tienen todas las personas, todas. Todas aquellas personas a las que se les ha reconocido que son personas cuidadoras mediante una orden foral tienen derecho al respiro de 15 días.

Sé que no lo utilizan y yo también tengo la intención de mejorar ese dato, y estoy en ello. Se les ha enviado unos SMS hacia el mes de marzo. Es cierto que

este cuatrimestre nos encontramos mejor que los primeros meses de 2021, recién puestas las vacunas, y también estamos mejor con respecto a la pandemia. Y, en este sentido, el hecho de acercarnos a una residencia crea otro tipo de acercamientos o sensaciones. Así que yo creo que existe. Y no mezclamos las cosas, cuando los centros de día son unos servicios sociales que en la actualidad están totalmente consolidados y cuando decimos que quieren o queremos hacer un centro de día en un lugar y otro; en el año 2003 había otro tipo de debates en este territorio, porque se abrían centros de día y no había personas usuarias. Es decir, un nuevo servicio, un nuevo servicio social crea o debe realizar un camino, debe hacer un camino de conocimiento, y una vez conocido el servicio, se generaliza su uso.

Por lo tanto, reconozcamos que estamos en ese camino, y pongamos los medios. Una mejor comunicación. También hemos comenzado a encauzar el trabajo de la persona coordinadora de casos, lo cual también ayudará a realizar un trabajo de prescripciones o recomendaciones. Y estamos realizando ese camino, y por ello digo “profundizando y desplegando”. Porque no está finalizado, y seguramente no finalizaremos en esta legislatura, pero no hay ninguna duda de que lo hemos profundizado y desplegado.

Eta Lanbidegaz batera egindako lan bat aitatu deustazu. Lanbidek diruz lagundutako proiektu batzuk daukaz etxeko zainketen arloko profesionalentzat, baina ez jagot niri berba egitea, ez aitatzea, ez azaltzea. Izan be, Lanbide gobernetan dauen Gobernu kontrolau behar dauen Ganbera bat dago eta, halanda ze, foro horretan egin beharko da hori. Niri jagole informalen zainketez berba egitea jagot, euren atsedenez, euren prestakuntzeaz eta ezarten ari garan neurriez.

Por tanto, estamos avanzando en lo servicios de respiro, en la coordinación de casos y en el derecho a la información, y también en la formación. Algunos aspectos ya se los he avanzado, y otros debemos continuar profundizando y desplegando. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. Y el punto sexto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2022/0000982](#))

Autor: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Asunto: La financiación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia al soterramiento del TAV a su entrada en Bilbao.

Documento ([R.E.11/E/2022/0000982](#))

Expediente: ([11/B/25/0003444](#))

Principal:

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2022/0000982SE](#))

Egilea: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Gaia: AHT Bilboko sarreran lurperatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak eskainiko dauen finantziiazinoa

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000982SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0003444](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Sí, el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecochea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

AHTa, duda barik, aukera estrategikoa da, faktore erabagigarria gure lurralde osoko enpresen garapen ekonomikorako eta lehiakortasunerako. 2021eko urrian, tribuna honetan bertan, zuk, Rementeria jauna, AHTa Bilbora lurperatuta sartu daiten kudeaketa-gomendio baten formulaea proponidu zenduan. Ba, kudeaketa-gomendia lortuta, eta El Correo egunkarian orain dala gitxi egin jakon alkarrizketa baten Aburto Bilboko alkateak esan dau trena Bilbora sartzea finantzetako Rementeria jaunak jarri ebazan baldintza guztiak beteten dirala, baina ni neu ez nagoanez Unairen buruan, eta Aburto alkatearen esanetan baldintza horreek emoten diran ezker, ba nor hobeto zu baino, Rementeria jauna, hemen eta orain Bilboko alkateari eta bizkaitar guztiei erantzun degiezun. Eta horregaitik galdetzen deusugu: zer dauka Ahaldun Nagusiak buruan Abiadura Handiko Trena Bilbon lurperatzeko lanak Foru Aldundiak finantzatzeari jagokonez?

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Andrade Aurrecochea. En el turno de réplicas, señor Diputado General, tiene usted la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, y a todos los junteros y junteras.

Menuda pregunta, que qué le pasa a uno por la cabeza...

Hara, Andrade jauna, gai garrantzitsuenetako bat ospatzen dodala jakinarazo gura deusut, hori bai: zuk aitaturako erabagia eta akordioa, hatan be. Euskal Taldeak Madrilen egindako gestinoei esker Espainiako Gobernuak autortu egin dau tunelaren obra horreetan egin beharreko kudeaketa-gomendio hori, beti be trenbidearen alderdi zorrotzakaz lotuta ez badago.

Hain zuzen be, 2021eko urrian eskatu neban tribuna honetan bertan. Horrelan da, eta une haretan ezinezkoa emoten eban hori posible bihurtu zan, egia bihurtu zan, baina hondino geltokiaren gomendia kudeatu egin behar da, gomendia onartu egin behar da, gero Boletinean argitaratu behar da, geltokiaren proiektuari buruzko informazino-azterlana egin behar da, ondo ezagutzen dituzuen txosten sektorial guztiakaz proiektuaren aurretiazko azterlanak egin behar dira. Lehen be berba egin da tamainu horreetako proiektu horreei buruz. Beharrezko eraikuntza-proiektuak idatzi behar dira, eta horreek guztiak definituta dagozanean jakingo da zertaz ari garan, zein partidaz ari garan, zein aurrekontu zehatz behar dan hori lizitetako.

Ordura arte ez doguz geltoki horren ezaugarriak be ezagutzen, ez dakigu hori egiteko behar dan aurrekontua zein dan. Laster, hor eta une horretan erabagi beharko da zein dan parte-hartzea, halakorik egon behar dauen ala ez, eta zertan zehazten dan trenbide-izaerako eta urigintza-izaerako obra hori. Izan be, jakin badakizue Aldundiak ez daukazana trenbidearen arloan edo urigintzearen arloan eskumenik; esan dodan

moduan, eskumen horreek Espainiako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren esku dagoz.

Hori esanda, jakinarazo gura neuskizu ulertzen dodala Bizkaiko Talde Popularraren eretxia Aldundiak geltoki horretan parte hartu behar dauela izatea. Horretaz zer uste dozun be galdetu gurako neuskizu.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Diputado General. Y en el turno de réplicas, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Beraz, Ahaldun Nagusiari burutik pasetan jakona zera dala uste dot: gaiak aurrera zelan doazan ikusten itxaroten jarraitzea. Penea da, izan be, Aburto jaunak zuk tribuna honetan bertan ipini zenduzan baldintza guztiak beteten dauzala inoalako. Kudeaketa-gomendio hori onartzeko eta sinatu ahal izateko urrats guztiak emoten dira, eta, beraz, Bilbora trena lurperatuta sartzea finantzetako jarri zenduzan baldintzak beteten ziran. Penea da zuk, behin kudeaketa-gomendioa lortuta, Aldundi honetan parte-hartze ekonomiko horren aldeko konpromisorik ez hartzea. Bizkaiko Alderdi Popularraren ustez, Aldundiak dirua jarri behar dau AHTa sartu daiten eta horrelan Bilbori laguntzeko. Eta Aburto jaunagaz eten barik izaten dozuzan eztabaidek kezkatu egiten gaitue. Izan be, ez da AHTaren gaia bakarrik, eta “Unairen burutik ea zer pasetan dan” galdetzen deusula. Nik ezin deusut hika egin jente aurrean, baina zuon desadostasunak ohikoak dira. Nagusi Intelligence Center zentroaren inguruan be eztabaidea izan zenduen, Tarabusi eraikinean joiala eta...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Parkatu, Andrade Aurrecoechea jauna, mugatu zaitez gaira... Por favor.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Bai, bai, gaira mugatzen naz, ba. Baina Rementeria jaunak Aburto jaunagaz daukazan desadostasunak bizkaitarrentzat eta Bilboko bizilagunentzat kaltegarriak dira, Bizkaia Torreagaz be eztabaidatu egin ebelako, Aburto jaunak dirua jarteari itxi eutsanean. Errekaldeko saihebidetaz be eztabaidea izan dabe, gaur goizean aitatu dogun moduan, alkate jaunak pausuak emon daizuzan sasoi dala esan deusulako horretan be; orain Udalkutxak Bilbori emoten deusan finantzaketa gainbegiratuko dozula be badinotsazu.... Dinodan lez, bizkaitarroi kalte egiten deuskun matrakea da.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Andrade Aurrecoechea, mesedez, gaurko eztabaidearen helburua dan galdereari jarraitu...

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Hoba ez, galderea Aburto jaunak egin dauena da-eta, eta nik hemen errepetidu egin dot. Zer dago zure buruan? Eta zuk pentsetan jarraitzen dozula dinozu. Bardin goaz etxera. Ez dakigu zer daukazun buruan. Izan be, orain zelan amaitzen dan kudeaketa-gomendio hori ikusi arte

itxaron behar ei dozue, zuk dirurik jarriko dozun edo ez ikusteko.

Nire ustez, bizkaitarrei atxakiak ipinten zabilz, Udalari atxakiak ipinten. Nire ustez, urrats zuhurra eta onuragarria izango litzateke Aldundiak konpromisoa hartzea; izan be, hori, nire eretxian, beste tantu bat gehiago izan leiteke Bilbora tren, tren-geltokia lurperatuta sartzea konpromiso bat izan daiten, eta lehenbailehen errealidade bihurtu daiten. Uste dot Aldundia konprometidu leitekela diru hori emoteko, hori be finkatuta dagoalako. Ez dakit zergaitik dinozun ez dagoala finkatuta, finkatuta dago-eta; eta, orduan, uste dot helburu bat izango litzatekela zuk hori babestea, horrek arabere gehiago sustatuko dau-eta tren hori Bilbora sartzea. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted. Y en el turno de réplicas, señor Diputado General, tiene usted la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias. Ea astia daukadan.

Ez dozu egia esan baieztapen batzuk esan dozuzanean, Andrade jauna.

Bigarrenik, hara, zera gogorarazo gura deutsut: hemerotekea irakurteko dago. Gogorarazo gura deutsut Alderdi Popularreko bozeroaleak 2019ko maiatzean esaten ebana; eta esaten eban Aldundiak ez ebalu dirurik jarri behar AHTaren geltokiaren sarrerea lurperatzeko; hara, zuek egin ohi dozuen beste inkoherentzia bategaitik dinot. Ohituta gagoz zuon inkoherentziak entzuten: zerga guztiak orokorrean jastea gura dozuela entzuten ari gara, baina, aldi berean, beharrezko obra guztiak be egin gura dozuez, eta askoz gehiago, ezta? Hazelako inkoherentziak, hazelako inkoherentziak!

Ohituta gagoz esaten dozunera. Hara, Aldundiak sano argi dauka. Argi-argi dauka. Erabagia hartu behar danean hartuko da, Aldundiak trenbide- eta urigintza-arloan daukazan eskumenen esparruan, eta hartu behar danean hartuko dau erabagia.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Diputado General. El punto séptimo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno [\(R.E.11/E/2022/0001026\)](#)

Autor: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Asunto: Un convenio de colaboración con las Madres Mercedarias.

Documento

Principal:

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan [\(11/E/2022/0001026SE\)](#)

Egilea: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Gaia: Ama Mertzedariakaz sinatutako lankidetzeta-hitzarmena

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2022/0001026SE\)](#)

[\(R.E.11/E/2022/0001026\)](#)

Expediente: [\(11/B/25/0003452\)](#)

Espedientea: [\(11/B/25/0003452\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra. Y en este punto quiero saludar al personal trabajador del centro que está siguiendo este punto entre nosotros/as. Señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as, eta agur berezi bat Ibarako komunitadeko (Orozkon) Ama Mesedetakoak egoitza-zentroko beharginei.

Tira, ez da lehen aldia gai horri buruz galdetzen doguna 2018an Ama Mesedetakoek erabagi ebenetik kanpoko enpresa batek horniduko ebazala egoitza-zentro horretako giza baliabideak. Bere garaian, aldaketa horrek kaleratzeak eragin ebazan, eta ordura arte autortuta egozan eskubideak eta lan-baldintzak galtzea be ekarri eban. Horren ondorioz, beharginek hainbat greba-egun egin behar izan dabez, eta gaur egun indarrean dagoz. Eta hori ez da txikikeria. Zelan izan leiteke Aldundiak egoitza-zerbitzu bat hitzartzea hori garatzeko beharginik ez daukan erakunde bategaz? Gure taldearen, Elkarrekin Bizkaiaren eretxian, egoera hori Gizarte Zerbitzuen Legearen eta dekretu arautzairenen baten aurka doa. Ezin dogu ulertu zelan eusten deusan horri Aldundiak, jakinaren gainean dagoanean. Arabere gehiago, ezin dogu ulertu zelan hartu dauzan orain arte neurriak egoera horri legezko estaldurea emoteko. Zera galdetu gura deusugu: ze neurri hartuko dozuz egoera hori arautzeko ahalik eta lasterren?

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora Presidenta, junteros/as y también a las trabajadoras del centro del barrio Ibarra de Orozko, buenos días de nuevo.

Lankidetzeta hori, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak Orozkoko Ama Mesedetakoakaz daukan lankidetzeta-hitzairena testuinguruan kokatu behar da. Gaur 1975az berba egiten behartuta gagozala emoten dau, gauza batzuetarako balio dagiala espero dot, eta beste batzuetarako be bai; izan be, sortu zanean Bizkaiko Foru Aldundiak desgaitasuna daben personak artatzeko zentro bat hitzartu eban Orozkoko Ibarra auzoan, (aurrekari batzuk 1963koak dira), Aldundia be hondino Foru Aldundia ez zanean, eta gizarte zerbitzuei be ez jakelako orduan gizarte zerbitzu deitzen. Bertan, adimen urritasuna eukien personak artatzen ebezan Ama Mesedetakoek, eta Bizkaiko Foru Aldundiak arlo horretako eskumenak bere gain hartu eta gauzatu ebazanean, errealidade hori lankidetzeta-hitzairenen bidez islatu genduan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ondo aurreikusten dauen moduan; eta gizarte-ituna arautzen dauen Dekretua egin barik dago, eta dekretu horrek zehaztuko leuke, halan egokitu ezkeru, Orozkon desgaitasuna daben persona horreek artatzeko lankidetzeta-hitzairenen bat sinatu ezin dan, ala bai.

Eta, aldi berean, 2013an Ama Mesedetakoek aldatu egin eben euren antolaketea. Erlijioso gitxiago dago, gitxiago dira, eta gero eta konplejuagoa dan errealidade bat kudeatzeko arazoak daukiez. Gainera, errealidade hori guk ezarten dogu,

han gertatzen danaren gaineko erantzukizun publikoa daukagulako. Administraziook gure gain hartzen dogu erantzukizun publikoa, zainketak profesionalizatu daitezala eskatzen dogu, legezko eskakizunak, zergak, lana, segurtasuna, kudeaketeak be profesionalizazioa eskatzen dau-eta, eta 2018an kudeaketa profesionala kontratatea proponidu eben, kanpoko erakunde bat. Uste dot nire karguan egoan aurrekoak esan eutsula Batzorde baten. Baina eurak dira titularrak, gugaz beste aldean dagozanak, kontratuaren zatia Ama Mesedetakoak dira, 1963tik hona Ibarren desgaitasuna daben personei arreta hori emoten ari diran berberak.

Halanda ze, monjek kudeaketan eskatu eben laguntzeak bertan bizi diran erabiltzaileei eta euren beharlekuko profesionali arreteta emoten jarraitzeko borondateari erantzuten deuto, behargin falteagaitik ezin eutsielako egoitzearen kudeaketeari jarraipenik emon, horrelan adierazotea ixten badeustazue. Beste kontu bat da laneko hartu-emonak.

Beraz, beti erantzun dogu erne gagozala; izan be, azken urtean inoiz baino bisita gehiago egin doguz egoitzara, baita pandemia kontrolatuko neurriak prebeniduteko eta berrikusteko be, eta ez eizu zalantzarik euki, arreteari buruzko zalantza-izpirik txikiena izan ezkeru jardungo dogu-eta, beste kasu batzuetan be jardun dogun lez.

Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. Y en el turno de réplicas, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Beraz, Murillo jauna: ez da ezer egin behar, indarrean dagoan legeriatik kanpo badago be, gauzak testuinguruan jarri behar diralako. Ba, jarri daiguzan testuinguruan. Mende honetan gagoz, ez XIX. mendean, ezta? Ez XVIII. mendean, ezta XVII. mendean be. Eta orduan, zerbitzu horretako beharginek mende honetako lan-baldintzak eta lege-esparrua daukiez, ez aurreko mendekoak. Beraz, horreek ezartea eskatzen deusugu, ezpabere..., zera, dinotsudana da, hau da, ez dala beteten ari indarrean dagoan legea. Hara, begira zer egin dozuen egoerea indarrean dagoan legera ahalik eta gitxien egokitzeo. Aurreko hitzarmenean, Ama Mesedetakoek honako klausula hau eben zuokaz sinatutako hitzarmenean:

10. klausularen arabera, erakunde laguntzaileak behargin kopuru egokia izan beharko leuke berbatutako zerbitzua emoteko. Horren arabera, azpikontratazioa prestazio osogarrietan baino ezin izango ei da egin. Ez dakit zure ustez beharginen prestazioa osogarria dan, ratioek ez dabez azpikontratautako prestazioei jagokezan beharginak barruan hartzen, eta zuok hori guztia Hitzarmen barrian (guk aurreko diputaduen aurrean salatu genduanean), hurrengo hitzarmenean bat-batean ezabatzea ebatzi dozue; jakina, ez datorrelako bat, ez zarielako beteten ari.

Hori da testuinguruan jartea, Murillo jauna, egoerea alfonbra azpian ostendu beharrean, emioizu konponbidea; izan be, zeozelan hitzarmena beteten arituko zarie, kontu handiz, baina ez zarie ezelan be beteten ari indarrean dagoan legeria. Hara, berbarako, ez zarie beteten ari Gizarte Zerbitzuen Euskal Legea, erakundeek ez dabe beteten. Esaterako, 59. artikulua, zerbitzuak eta zentroak baimentzeari eta homologatzeari buruzkoak, honako hau dino:

“Ekimen pribatuko erakundeek, Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatzeaz gain, kasuan kasuko administrazio-baimena beharko dute”. Uste dot, erantzukizun publikokoak diran gizarte-zerbitzuen horniduran esku hartu ahal izango dozuela. Eta, gainera, zera dino: “horretarako egokitzen zaizkion eskakizun material, funtzional eta pertsonalekoak bete ondoren”. Hau da, erakundeak berak euki behar dau behargin hori, ez dago hirugarren erakunde bat, eta horrek ez dauka bigarren irakurketarik, Murillo jauna. Behargin barik ez dago baimenik, eta baimen barik ez dago homologazinerik gizarte-zerbitzu publikoen sisteman integrauta dagozan zerbitzuak emoteko.

Baina, hara, gainera, jarraituko dogu, martiaren 10eko 40/1998 Dekretu arautzailea be urratu egiten dau, baimena, erregistroa eta homologazioa arautzen dauzan dekretua, hain zuzen be, martxan jarri ahal izateko gaitasuna izan behar dabela dinoalako (gaitasun materiala, teknikoa eta giza-gaitasuna). Eta itxi eidazu esaten, baina ez dauka giza alderdia, hori kanpoan dagoalako. Euskadiko hirugarren sektoreari buruzko 6/2016 Legea be ez dau beteten, gure mendean sortu zan hori. Hori da gure testuingurua. 4. artikulua: “Esku-hartze sozialeko jarduerak eta interes orokorreko jarduera sozialak”. Eta horreek dira sektoreko erakundeek bete behar dabezan jarduerak administrazio publikoagaz berbatu eta kontratau ahal izateko, ezta? Izan be, betebeharra daukie, ezta? Euren lehenengo betebeharretakoa bat da lan-baldintza duinak bermatu behar deutseezala ordaindutako kontratautako beharginei, eta ez daukie beharginik.

Orduan, esaidazu. Lau urte igaro dira beharginak subrogau ziranetik. Alfonbra azpian ezkuteteari ixteko eskatzen deusuegu, eta horri konponbidea emon degiozuela. Hori ez da lan-gatazka bat, Foru Aldundiagaz gatazkea da, indarrean dagoan legedia beteten ari ez dalako. Zeuok zarie legea betearazoten ez dozuena.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Uste dot De Madariaga andreari ahaztu egin jakola ez dagoala Euskal Autonomia Erkidegoko desgaitasun-zentroak arautzen dauzan dekreturik; halanda ze, ezin dogu dekretu baten arabera baimendu desgaitasunen bat daben personentzako zentrorik. Ahaztu egingo jatzun, ez dozu-eta esan.

Gizarte-itunaren dekreturik ez dagoala esatea be ahaztu egin jatzula uste dot, eta horrek aitatu dozuzan Gizarte Zerbitzuen Legearen aginduak garatu behar dauz. Eta hori be aitatzea ahaztu egin jatzula pentsau gura dot.

Edozelan be, Ama Mesedetakoakaz daukagun hitzarmena bertan behera ixtera konbidetan ari bazara, bertan bizi diran persona horreei arrete emoten saiatuko garala esango deusuet, eta zentro horretan behar egiten ari diran 43 beharginen lanari jarraipena emoten be bai, Ama Mesedetakoek idatziz adierazo deuskuen borondatea da-eta.

Laguntzea emoten saiatuko gara, baina ez da gure kontua bakarrik. Eurek egin behar dabe, eta batzuetan, gatazka kolektibo zabala izateak ez dau laguntzen.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias

a usted, señor Murillo Corzo. El punto octavo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI**

jaunak:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2022/0001051](#))

Autor: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Asunto: La situación o estado del procedimiento de desanexión o segregación de Usansolo respecto del término municipal de Galdakao.

Documento **Principal:** ([R.E.11/E/2022/0001051](#))

Expediente: ([11/B/25/0003472](#))

8.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2022/0001051SE](#))

Egilea: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Gaia: Usansolo Galdakaoko udalerritik desanexionau edo bereizteko prozedurearen egoerea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0001051SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0003472](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra. Y en este caso también quiero saludar a los vecinos y vecinas que se han acercado desde Usansolo. Bienvenidos/as. Tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días de nuevo. Muchas gracias Osokora hurbiltzearren.

Daborduko 30 urte baino gehiago igaro dira Usansoloko bizilagunak bereizketa-prozesua aurrera erodateko burrukan hasi ziranetik. 30 urte baino gehiago, eta gitxienez 4 saiakera, kasu guztietan Udalean bertan hil ziranak, ez zalako borondate politikorik egon.

Halanda be, oraingo honetan Galdakaoko Udalak garai eta modu egokian hasi eta amaitu ditu beharrezko izapide guztiak, eta gaur egun Foru Aldundiari jagoko, Bizkaiko Lurralde Mugaketei buruzko Foru Arauaren arabera, izapideak egiten jarraitzea, prozesu guztia Bizkaiko Batzar Nagusiek jagokon erabagia hartuta amaitu daiten.

Kontuan harturik gaur egungo prozesuan eragile politiko jakin batzuek boikota egiteko eta prozesua geldiarazoteko saiakerak egin dauzala, galdera hau egiten deutsu batzarkide-talde honek: noizko dago aurreikusita Bizkaiko Foru Aldundiak egin behar dauzan eta hondino egin barik dagozan izapideak ebatzea?

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, De Madariaga Martín andrea. Y en el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Etxanobe Landajueta, tiene usted la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Y yo también quiero saludar a las personas que han venido desde Usansolo. No les conozco, pero ya nos conoceremos.

Hain zuzen be, ondo esan dozun moduan, De Madariaga andrea, prozedurearen azken fasean gagoz, kasu honetan Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzko 9/2012 Foru Arauak araututako prozedurea, Usansoloko udalbarri barria eratzeko Galdakaoko lurraldearen zati bat bereizteko eskaerari erantzuteko, eta kasu honetan Galdakaoko udalbatzak horrelan eskatuta.

Kasu honetan, Osoko Bilkurearen erabagia, hau da, Batzorde Mistoak bere garaian egindako memoria onartzeari buruz Osoko Bilkuran hartutako erabagiaren ondoren eta herritarren kontsulta egin ondoren, espedientea Foru Aldundira bialdu da, gainerako izapideak bete daizan. Daborduko egin da nahikotasun ekonomiko-finantzarioari buruzko txostena, eta orain espedientea Aholku Batzorde Juridikoa aztertzen ari da. Batzorde horrek jagokon erespena emon ondoren, Gobernu Kontsejuaren erabagiaren mende jarriko da. Kasu honetan, Aholku Batzorde Juridikoak hilebeteko epea dauka txostena egiteko, eta epe hori bagilaren 16an amaituko da. Epe hori igarotakoan, errespenaren edukina aztertu ondoren, Gobernu Kontsejuak jagokon erabagia hartuko dau. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajuela. En el turno de réplicas, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, 48. artikulua aitatu dozu, eta izapidea une horretan dagoala. Aholku Batzordearen esku dagoala esan dozu. Niri kontuek ez deustie emoten; izan be, dokumentazinoa Aldundira martiaren 28an bialdu bazan, uste dogu zuok epe bat izan behar dozuela berori aztertzeke eta hilebeteko epea izan leitekela gitxi gorabehera. Beste hilebete Aholku Batzordeak barriro Aldundira helarazoteko. Eta uste dot martiaren 28tik bi hilebete maiatzak 28 dala, eta ez bagilak 16.

Edozelan be, zera esan gura dot, ez dot ulertzen..., edo ez neuke gura Aldundiaren aldetik atzerapen gehiago edo prozesu hori geldiarazoteko saiakera gehiago egon daiten. Eta, tira, gustauko litxakigu esan deiguzula, zure kontuen arabera, uda heldu orduko azken Osoko Bilkuran sartuko dan ala ez, garagarriko Osoko Bilkurarako eukiko dogun, edo pentsetan ari zaran irailera, urrira joan leiteken... Edo zure kalkuluen arabera, nora joango gara? Batez be, zera dinotsudalako, hau da, daborduko ia beste hilebeteko aldea dagoala 48. artikuluan prozedurea apliketeagaz bakarrik alderatuta.

Halanda ze, tira, plataformea osotzen daben personak be hemen daukaguzan ezkerro, gustauko litxakit hemen jente aurrean konprometidu zaitezala eta hori zein Osoko Bilkuratar joango dan esan deiguzula, eta Aldundiko Gobernuaren jarrerea atzeratzen jarraitzea dan (eta horixe da daukagun sentsazinoa), edo, ostera, zeozelako arintasuna emongo deutzazun horri. Izan be, nire ustez, gehienezko denporak daukaguz berbabide. Hau da, ez da denpora bat..., hilebete artekoa daukazu. Ez daukazu zertan bete hori, prozesu hori arintzeko borondate politikoa egon ezkerro, ez gara joango foru-araudian jasotako gehienezkoak betetera.

Halanda ze, jakin gurako neuke zer jarrera izango dauen Gobernuak

horri buruzko izapideak egiteari jagokonez, alde batetik, eta Osoko Bilkurearen data bat adierazo ahal deuskuzun, hori eztabaidatu eta ebatzi ahal izan daiten bertan. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. Y en el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Etxanobe Landajuela, tiene usted la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Señora De Madariaga, gai hori eztabaidatzeko Osoko Bilkurea zehaztea ez jagot niri, Mahaiari jagoko, eta Batzar Nagusiei jagoke. Niri Foru Araudiak ezarten dauzan epeak eta izapideak betetea jagot, eta hori da egin behar dodana eta horrelan egingo dogu, orain arte egiten ari garan moduan, eta Udalak egin dauen moduan. Udalak egin dau eta gu egiten ari gara. Ez dogu inongo eperik gainditu.

Aholku Batzorde Juridikoaren erespina maiatzaren 13an sartu zan erregistroan, eta, beraz, eurek daben gehienezko epea, parkatu, maiatzaren 13an sartu genduan, eta, beraz, erespina emoteko gehienezko epea bagilaren 16a da. Epe hori igarota, guk hilebeteko epea izango dogu, hain zuzen be, gaia Gobernu Kontsejura bialtzeko, eta, gero, hortik aurrera, Batzar Nagusietara helduko da, eta Batzar Nagusiek ebatziko dabe, bada, gai hori noiz eztabaidatuko dan Osoko Bilkuran.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajuela. El punto noveno del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno [\(R.E.11/E/2022/0001052\)](#)

Autor: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Asunto: La presentación presencial de la declaración de la renta 2021.

Documento

[\(R.E.11/E/2022/0001052\)](#)

Expediente: [\(11/B/25/0003473\)](#)

Principal:

9.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan [\(11/E/2022/0001052SE\)](#)

Egilea: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Gaia: Errentaren aitortpena aurrez aurre aurkeztea

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2022/0001052SE\)](#)

Espedientea: [\(11/B/25/0003473\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Urkaregi Etxepare, representante del grupo Euskal Herria Bildu, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as.

Este año, cuando se presentó la campaña de la Declaración de la Renta del ejercicio 2021, el Diputado Foral de Hacienda y Finanzas señaló que “cada persona puede optar entre cualquiera de los tres canales de presentación, ya que tanto en oficinas como por teléfono y por internet se pueden realizar todos los trámites para presentar la declaración”.

Cuando se accede a la página web de la Campaña de la Renta del ejercicio 2021, en el apartado “Presencial”, se explica lo siguiente: “Ten en cuenta que las declaraciones complejas no se pueden realizar de forma presencial”.

Y una vez que se accede a dicho apartado, aparece la lista de excepciones.

Es por ello que formulamos a José M^a Iruarrizaga Artaraz, Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, la siguiente pregunta para su respuesta oral:

¿Cuál es el motivo por el que en dichos casos no es posible presentar la declaración de la renta de forma presencial?

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Urkaregi andreak ondo baino hobeto dakian moduan, zergadunei errentearen kanpainan laguntzea araututa dago, bai Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, bai PFEZaren arauetatik eratorritako Araudian, bai kanpaina garatzeko urtero sinatzen dan Foru Aginduan, kasu honetan martiaren 16ko 491/2022 Foru Aginduan. Bertan, Urkaregi andreak aitatu dauzan 3 kanalak adierazoten dira, digitala, telefonikoa eta aurrez aurrekoa, eta berak dinoan lez, aurrez aurreko kanalean Foru Agindu horretan agertzen diran salbuespen batzuk aitatzen dira. Foru Agindua hartzen badozu, eta salbuespenak aztertzen badozuz, hau da, eragiketa gatzak deitzen diranak, horreek dira kasu guztietan baztertzen diranak, sano autorpen gatzak diralako, bai zergadunek lortzen dabezan errenten izaereagaitik, egiten dabezan eragiketen kopuruagaitik, bai gaiztasun horrek askotan Errentearen autorpena aurkezteko aholkularitzea behar izatea dakarren kasuistikeagaitik, eta hori da, hain zuzen be, zuk egiten dozun galderan jarten dozun adibidea.

Eta hori da, hain zuzen be, autorpen gatx horreek leihatilan aintzat ez hartzeko errazoa, eta sano gitxi dira. Eta, bide batez, gogorazo gurako neuke hori ez dala nobedade bat Errentearen kanpaina honetan, 1994. urtean Rentanet Etxean ezarri zanetik horrelan egiten dalako errentearen kanpainan. Izan be, normalean, zergadunak eragiketa gatx horreek aholkulari bategaz diseinatu edo definituten dauz, eta aurkezteko aholkularitza hori behar dabe, eta, horregaitik, aholkulariaren edo ordezkari baten laguntzea behar izaten dabe aurkezteko. Ez gara ari normalean 15 edo 20 minutuko epean errenta-autorpen baten aurkezpenean egin leitekezan eragiketa sinpleez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. En el turno de réplicas, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

Lo que ocurre es que precisamente es en esas situaciones, en esas situaciones complejas cuando se requiere ayuda para hacer la declaración de la renta.

Y claro, se dice que hay muchos casos complejos. Seguro que muchos son complejos, pero traeré dos casos que creo que no tienen por qué ser tan complejos:

- No puedes hacer cuando has heredado una vivienda; pero quizás seas tú el único heredero, otra cosa es que haya más de uno.

- No puedes hacer si te has divorciado y ha habido una disolución de gananciales con alteración patrimonial. ¿Eso es tan complejo?

Y, además, se dice: “tendrás que hacer la declaración de la renta por tu cuenta, para ello podrás utilizar todos los medios que te facilitemos en el canal web”.

Ahí hay una contradicción: no puedes hacerlo de forma presencial, ¿pero vas a poder hacerlo por internet o por teléfono? Eso es imposible.

Nik uste dot, dibortzietan bazara irabazpidezko ondasunen desgitearen ondorioz ondarea aldatuko dozun lez, ezin dozula Ogasunean hitzordurik eskatu esatea, edo etxebizitza bat oinordetzan hartuta daukazulako ezin dozula eskatu esatea... Tira, gitxi dirala esan dozu eta gitxi izan daitezala espero dot, baina ez dot uste hain gaxak diranik, edo kasu gaxak eta hain gaxak ez diranak egon leitekez.

Eta, edozelan be, hori ez da ezer barria esan dozu, eta badakit ez dana barria. Baina arazoa da igaz “Errentea erraza da” egoeran gengoza (eta ikusi zan ez zana erraza), eta oraingo egoeran zera esaten da: “kanaletako edozein aukeratu zeinke”. Eta penea da ahaldun jauna ez egotea, baina ez nekian zelan azaldu, baina zera esango deusut: ez zabilz egia esaten, eta hori da ahaldun jaunak esan dauena, Talde Mistoko jaunari esan deusana. Ez zabilz egia esaten, edozein ezin dalako horretara joan. Eta, hain zuzen be, ez da gauza barria, baina beste egoera batetik gatoz; izan be, Aldundiak, Ogasunak, banku-erakundeakaz hitzarmena eukan (eta guk hori kritikau egin dogu, zuzenean egin behar zala uste gendualako), baina banketxeek kontu horreek egiten eutseezan. Eta orain zuk emoten deutsezun urtenbidea aholkularitza batera joan daitezala da, hau da, kontratau ahal izateko euren diruagaz ordaindu dagiela, eta hori ez da Errentearen aurkezpenean esan zenduana.

Persona guztiek 3 kanaletatik edozein aukeratu leikiela esaten zenduanean, ba hori egia ez esatea da. Izan be, aurrez aurre egoteko, baldintza jakin batzuk bete behar dira, eta, gainera, zeuok erabagiten dozue zer dan konplejua eta zer ez dan konplejua. Ez daukat dudarik egoera batzuk gaxak izango dirana: persona batek atzerrian dirua euki ezker, ez dakit, tira, ba ordaindu dagiala aholkularitza bat, baina beste egoera batzuk, nire ustez, nahiko komunak dira. Uste dot horrek ez dauela zertan izan hain gaxa Aldundiak egoera horreek konpondu daizan, persona bakotxa bere dokumentazioagaz joan ezker. Eta ez dakit arazoa ez ete dan behargin kualifikauagoak behar dirala gai

horreek benetan lantzeko. Ez dakit.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Ez, hara, Urkaregi Etxepare andrea, egia ez esatearena, ez. Hau da, Ogasuneko gaien jarraitzailea zaranez, martiaren 18ko Foru Agindu bat hartzen badozu Boletinean, hara, hortxe dagoz markauta salbuespenak, ezta? Irakurriko zenduan; irakurriko zenduala dinot nik, ezta? Eta badakigu hori zer dan.

Jakina, zera dinostazu, ez... Oinordetza sinpleak, oinordetza errazak egiten dira, hoba ez. Baina gizonezko batzuk datozanean interpretazino bat behar daben oinordetza batzukaz, ze partaidetza-portzentaje, zeintzuk, Komisario bat badago, gozamenik badago... Ogasuna ez dago zergadunari aholkuak emoteko. Ogasuna zergadunari laguntzeko dago bere zerga-betebeharra bete dagian, eta horrek aholkularitza eskatzen dau. Eta horixe esaten ari gatxatzuz.

Izan be, gizon bat 10.000 euro baino gitxiagoko salmentakaz eta akzinoak salerosteko 5 eragiketaz badator, egingo deusagu errentea. Baina, jakina, 10.000 akzino salerosteko eragiketak egin dauzan gizon bat etorri ezker, zeozer esatearren, ba, hara, begira, hori ez da eragiketa erraza, eragiketa konplejua da. Eta, orokorrean, gauza horreek guztiak lotuta dagoz alde aurretik aholkulari bategaz egon izanagaz. Baina eragiketa gatx horreek ez dira Ogasunean aurrez aurreko laguntzako Ogasunaren ohiko kanpainan artatuko, ez orain, ez lehen. Eta oinordetza errazei, zuk dinozun lez, arretean emoten jake, Urkaregi andrea, eta badakizu artatu egiten dirana.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. El punto décimo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

10.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno
([R.E.11/E/2022/0001053](#))

Autor: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Asunto: Itinerario del bidegorri de Alonsotegi.

Documento **Principal:**

([R.E.11/E/2022/0001053](#))

Expediente: ([11/B/25/0003474](#))

10.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2022/0001053SE](#))

Egilea: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Gaia: Alonsotegiko bidegorriaren ibilbidea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0001053SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0003474](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: señor Méndez Urigoitia, representante del grupo Euskal Herria Bildu, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

El municipio de Alonsotegi lleva décadas reclamando la construcción de un bidegorri que conecte el casco urbano mediante conexiones seguras con Bilbao y Güeñes.

En 2007, el Ayuntamiento de Alonsotegi licitó la primera fase del proyecto del bidegorri, que abarcaba el primer kilómetro de la nueva pista. Desde entonces, todo han sido continuos problemas y retrasos para poder seguir haciendo este bidegorri.

En noviembre de 2018, el pleno municipal aprobó por unanimidad una propuesta de EH Bildu para solicitar financiación foral para conectar el bidegorri entre el barrio de Ularki y Arbuio.

Sin embargo, parece que la Diputación Foral de Bizkaia no tiene en cuenta estas propuestas y apuesta por un bidegorri paralelo a la BI-3651.

Es por ello que formulamos al Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales Gil, la siguiente pregunta para su respuesta oral:

¿Cómo tendrá en cuenta la Diputación Foral de Bizkaia los acuerdos aprobados en el Pleno de Alonsotegi, así como las reivindicaciones de sus habitantes y agentes sociales a la hora de proyectar el bidegorri que unirá Bilbao con Güeñes?

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Pradales Gil, tiene usted la palabra.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo.

Se trata de un bidegorri funcionalmente relevante, cuya viabilidad es compleja debido a que son precisas diversas autorizaciones sectoriales, fundamentalmente de URA y Confederación Hidrográfica.

La propuesta inicial formulada por el ayuntamiento de Alonsotegi en 2010 planteaba utilizar las antiguas pilas existentes sobre el cauce del río Cadagua que servían para cruzar el antiguo ferrocarril de La Robla.

Esta propuesta no cuenta con la aprobación de URA y la Confederación Hidrográfica que abogan por eliminar las antiguas pilastras del ferrocarril.

Al no ser viable la solución técnica planteada inicialmente (no es viable porque hay dos agentes, URA y la Confederación Hidrográfica, que han adoptado un acuerdo en contra), ha habido que analizar alternativas que fueran viables e incluirlas en el PTS de vías ciclistas. Y por eso se plantean soluciones integradas en el ámbito de la

carretera foral BI-3651, pero con una sección diferenciada y segregada del tráfico de automóviles. Es decir, se plantea una alternativa técnicamente viable que cumple los criterios de seguridad y los estándares de las vías ciclistas de Bizkaia.

La Diputación Foral de Bizkaia está trabajando, en colaboración con el resto de administraciones implicadas, para conseguir una solución ciclista de conexión entre Ularki y Arbuio segura y viable, así como en la concreción y desarrollo del eje ciclable del Cadagua, en el marco del PTS de vías ciclistas en tramitación.

No hemos estado quietos. Se ha integrado la solución en el PTS de vías ciclistas y actualmente estamos en fase de redacción del proyecto constructivo, señor Méndez.

Por tanto, compartimos el objetivo de lograr una conexión ciclable entre Bilbao y Gueñes y seguiremos trabajando en colaboración con el ayuntamiento para hacerla realidad, pero con una alternativa viable. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pradales Gil. En el turno de réplicas, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

En todas las propuestas aprobadas por el Ayuntamiento se solicita un nuevo puente respetando el viaducto por el que pasaba el antiguo ferrocarril de La Robla (Bilbao-León). Entiendo que es eso lo que hay que plantear.

Así lo recoge también la propuesta presentada por EH Bildu en enero de este año para realizar un recorrido ciclista y peatonal que conecte el centro urbano con Arbuio e Irauregi.

En la actualidad, diversas asociaciones y agentes sociales de Alonsotegi están llevando a cabo un sinnúmero de actuaciones relacionadas con el mundo de la bicicleta para reclamar conexiones ciclistas seguras y alejadas del tráfico rodado, recuperando el antiguo trazado del tren de La Robla. Yo creo que eso es muy importante. Usted ha mencionado que ese es un proyecto inviable. Yo he escuchado en más de una ocasión que existe ese informe de URA.

Baina Udalak bere proiektua dauka, eta Ingerlan enpreseagaz egin da hori be. Ezetsi egiten dauen URAREN ustezko txosten hori ez dago Udalean jasota. Udalak ez dauka horrelangorik, ez da inon agertzen. URAko zuzendaria bera auzokideakaz bildu da, eta ezin deusela txosten hori eskaini esan deutse. Zuk zeuk badaukazu, guri helduarazoteko eskatuko neuskizu, guk ez dakigu-eta ezinezkoa danik. Entzun egiten da, baina ez dago ezer fisikorik, edo ez dogu eskuragarri izan, eta Alonsotegiko herriak argi daukela uste dot, eta mobilizetan ari da horregaitik. Izan be, erantzunak gura dabez, gardentasuna gura dabe, egingarria dan jakin gura dabe, eta gaur egun ez dago horrelangorik. Eta errepide orokor bati itsatsita joatea da gura ez dabena; izan be, gaur egun, tira, bizikletaz arean profesionalago dabilenak horrelan jarraitu ahal izango leuke, baina bidegorriak euren umeakaz partekatzen dabezanentzat ez da egokia.

Alonsotegiko herriaren apustua argia da, hau da, erdigunea Ularkigaz eta Arbuio gaz lotuko dauen eta erdigunetik igaroko dan bidegorri baten alde dago. Uste

dot urrats horreek emon behar dirala, barriro dinot, gardentasunez jokatu behar dala uste dot. Benetan ezesten dauen txosten bat badago, publiko egin beharko litzatekela uste dot, eta Alonsotegiko Udalaren eta herritar guztien esku egon beharko leuke. Ezpabere, Alonsotegiko Udaletik eta auzo-kolektiboetatik egiten ari diran proposamenak kontuan hartu beharko liratekela uste dot.

Eta orduan bai, Aldundiari galdetuko neuskio ez bakarrik egingarria izan daitela, ezpada bi proiektuak egingarriak badira ea herriaren borondatea errespetauko dauen, Udalaren proposamenak eta azken egunotan mobilizau diran personak errespetauko dauzan. Gure proposamena da ez daitela derrigortu herritarren eta gertuen dagoan erakundeak, hau da, Udalak gura ez daben proiektu bat, erakundeen arteko akordio bat lortzen saiatu zaitezela eta Alonsotegiko auzokideakaz eta euren alkarteakaz adostasuna lortu daizuela, eta inplikautako eragile guztiak kontuan hartu daitezala, ahalik eta trazadurarik zehatzena eta egokiena egin eta Alonsotegiko herriaren beharretara egokitu daiten. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Pradales Gil, tiene usted la palabra.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Aldundiak beti erantzun deutse bai Alonsotegiko Udalak eta bai gizarte-talde eta ordezkari politikoek be helduarazo deuskuezan eskabideei eta proposamenei. Ez daukat astirik, baina une horreen guztien zerrendea egin ahal izango neuskizu. Dakizunez, izapidetzen ari dan bidegorrien LAPak, gainera, hainbat kontsulta eta informazino publikoko fase izan dauz, eta hasierako formulazinoan LAPak Kadagua ibaiaren ibilguaren pilare zaharrak erabiltea jasoten eban, La Roblako trenbide zaharra bertatik igaroten zan-eta. Baina URaren eta Konfederazino Hidrografikoaren kontrako eretxia izan genduan, eta horregaitik aldatu dogu plangintzea. Eta bai LAPak aurrerapen-dokumentuan egindako kontsultetan, bai hasierako onespenerako jente aurreko informazinoaren fasean be, ez dogu inolako ekarpenik jaso ez gizarte-eragileakandik, ez talde politikoakandik, ez Udaletik bertatik, eta azken 3 urteetan garatzen ari izan garan izapideak doguz berbabide.

Halanda ze, niri orain arraro egiten jataz kontu horreek. Zergaitik aurkezten dira orain? Ba al dago beste interesik? Zer jazo da azken 3 urteetan, inori ez jako-eta bururatu horrelangorik? Lanean ari gara, lanean jarraituko dogu, bideragarria izango dan eraikuntza-proiektua idazten jarraituko dogu, eta Alonsotegiko Udalagaz lankidetzan egingo dogu, zalantza barik.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pradales Gil. Y el punto undécimo y último del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

11.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

11.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno
([R.E.11/E/2022/0001056](#))

Autor: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Asunto: El control económico del convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y las Madres Mercedarias de la Comunidad de Ibarra.

Documento

([R.E.11/E/2022/0001056](#))

Expediente: ([11/B/25/0003477](#))

Principal:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea
Osokoan ([11/E/2022/0001056SE](#))

Egilea: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Madres Mercedarias de la Comunidad de Ibarra erakundearen artean sinaturiko lankidetzaz hitzarmenaren kontrol ekonomikoa

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0001056SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0003477](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

Como se ha mencionado antes, la Diputación Foral de Bizkaia tiene suscrito un convenio de colaboración con la entidad Madres Mercedarias de la Comunidad de Ibarra para la prestación del servicio residencial para personas con discapacidad.

Según los ingresos y gastos de las Cuentas Anuales de 2020, dicha entidad recibió de la Diputación Foral de Bizkaia 1.290.756,82 € Y casi la totalidad de dicho importe aparece en los gastos bajo el concepto denominado “Trabajos realizados por otras entidades en relación a la actividad”.

Y se especifica que imputado al centro no llega al millón, y no se dan más detalles.

Por ello, formulamos la siguiente pregunta al Diputado de Acción Social:

¿Cómo controla la Diputación Foral de Bizkaia que el servicio público al que destinó el dinero público, es decir, el servicio residencial para personas con discapacidad “Jesús María MM. Mercedarias”, se presta en las condiciones que establece el convenio de colaboración? Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora Presidenta, junteros/as, buenos días de nuevo. La señora Urkaregi me pregunta por las condiciones que establece el convenio de colaboración que la Diputación tiene suscrito para el servicio residencial Jesús María Mercedarias.

Auditoretzen eta justifikazino-kontuaren inguruan guk emondako datuei buruz galdetzen deustazu. Bigarren zati hori garrantzitsua da, desgaitasuna daben

personentzako zentro bat kudeatzen dau-eta Orozkon, eta desgaitasuna dabena personentzako zentro horrek 74 plaza daukazu guztira. Eta guk 63 hitzartuta daukaguzan ezker, justifikazio-kontuan egozten dabe, nahi-ta auditoretzea... Gastu-partida baten milioi bat baino gehiago diran arren, %80 egozten dabe, eta %80-85 gugaz sinatuta daukien hitzarmenari egozten deutesie, baina gastuen egozpen proporzionala da hitzartutako plazei jagokenez, aitatzen ari garan zentroak daukazan plaza guztien eta mekanismoen gastuei jagokenez.

Y los instrumentos que utilizamos son los que ustedes han solicitado por escrito y han recibido: los informes de auditoría, así como la memoria y la cuenta justificativa anual que realizan. Y al mismo tiempo solicitamos informes por casos para supervisar la correcta atención, hacemos visitas, llamadas y en los últimos años hemos recibido visitas de personal técnico del PCI. Esos son los instrumentos de los que disponemos para saber que lo pactado o acordado en el convenio se cumple y saber a qué se destina el dinero público. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. En el turno de réplicas, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Hola, muchas gracias, señora Presidenta. Y quería saludar al colectivo trabajador de las Madres Mercedarias del centro de Orozko, concretamente a quienes están hoy entre nosotros/as, puesto que este tema les importa mucho.

Y he de decir, bueno, igual ya no entienden las cuentas anuales, pero en los ingresos ya he señalado que consta más de un millón, y solo en los gastos usted ha dicho que no llega al millón porque consta menos, pero entonces mi pregunta es ¿qué ocurre con esos 238.146,34 € que se pierden por el camino? Y mi pregunta es ¿cómo controla usted en esas condiciones, porque consta con las condiciones que aparecen en el convenio de colaboración? Y ¿por qué digo esto?

Porque solo hay un epígrafe que dice: “Trabajos realizados por otras entidades en relación con la actividad”. Y mi pregunta es:

¿Conoce la Diputación las cuentas anuales de la empresa gestora? ¿Tiene conocimiento de ese millón y cómo gasta esa empresa gestora? Porque, claro, ese gasto no es de las Mercedarias, es de la empresa gestora, y eso no aparece por ningún lado cómo se gasta.

Hay que decir que en otra página aparece ese importe como “provisiones”. Pero ahí también están incluidos, como he dicho antes, los gastos de personal, y nos parece grave que la Diputación suscriba un convenio de colaboración con una institución que luego deje en manos de la empresa gestora todo el negocio, incluidos los de personal, y que la Diputación no dé importancia a esta situación, o parece que todo está normal, y que no se le da importancia.

Por eso he preguntado por el control del dinero público. Porque nos parece que la Diputación tiene que controlar el gasto, y para ello en el convenio de colaboración aparece que las Madres Mercedarias tienen que entregar el informe económico. Eso es cierto, entrega el informe económico y la auditoría, es cierto que es lo que ustedes han facilitado. Eso se hace, pero mi pregunta es qué es lo que hace la Diputación con eso, o si todo lo que aparece ahí le parece “normal”, porque en el convenio

de colaboración se concreta qué es lo que tiene que aparecer en dicho informe económico. Y entre otros aspectos se plantea:

La relación clasificada de los gastos de personal. ¿Dónde está esa relación clasificada? Porque en la cuenta anual aparece: gastos de personal 0.

Y luego se menciona: “La relación clasificada por conceptos de cada uno de los demás gastos imputados al estado de gastos en el apartado anterior”. ¿Es suficiente lo que hay? ¿Es suficiente decir que todo el dinero concedido por la Diputación se le da a otra empresa, que no sabemos cómo gasta ese dinero público?

Esa es nuestra pregunta. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Existe un precedente en la respuesta a esta pregunta, que se ha mencionado también antes.

Y, tal y como he mencionado, las Monjas Mercedarias solicitaron ayuda para la gestión del centro, y no es habitual solicitar ayuda para la gestión. Sin embargo, para que continuara la historia y el centro tuviera continuidad, así como para dar continuidad a la atención a las personas con discapacidad que residen allí, y para que continuara el personal contratado, solicitaron dicha ayuda. Es algo inusual. No es habitual que esté así, no lo es, pero la historia nos ha traído hasta aquí, y tenemos que gestionar la historia, o gestionar la situación actual.

Por lo tanto, pero para que no quede ninguna duda, sí sabemos a dónde se destina todo el dinero que se ha recibido, el auditor suscribe que se ha utilizado. ¿Para qué? Para atender al personal, para eso. Y nos imputan de forma proporcional, y digo esto para que no quede la menor duda, y hay que aceptar también que estamos ante una situación no habitual. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. Y, por lo tanto, una vez finalizado el Orden del Día, se da también por terminada esta Sesión Plenaria. Que tengan todos/as un buen día.

Batzarra 12:01ean amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:01 horas.